

HIZKUNTZAREN TRANSMISIO NATURALA

AURKIBIDEA

SARRERA

TXEPETX

1- Ikasketen teoria:

1.1- Motibazioa, ezagutza eta erabilera

1.2- Ikasketa prozesuak, hauen garapena: ikasketa primarioa/ikasketa sekundarioa

2- Hizkuntzaren esparruak eta funtzioak:

2.1- Hizkuntzaren esparruak eta funtzioak: definizioa / esparru motak

2.2- Oreka linguistikoa

3- Hitzun motak eta hizkuntza komunitatearen egitura:

3.1- Hitzun motak: hizkuntzen egoera (A,B, AB, BA,0)

3.2- Hizkuntza komunitatearen egitura: honen osaera / hizkuntza komunitate artikulatua / gune sinbolikoa

3.3- Hizkuntza komunitatearen desartikulazioa: arrazoiak, zeintzuk diren eragileak, hizkuntza ordezkapena, egoerari aurre egiteko bidea (normalizazioa)

3.4- Haustura tentsioa: hizkuntza komunitate gutxituak trinkotze bideari berriro ekiten dion unea: zer da, hau gertatzeko oinarriak, nola gertatzen da, gune sinbolikoaren nuklearizazioa.

FISHMAN

1-Hizkuntza iraupena eta etnizitatea:

1.1- Hizkuntza prozesuen iraupena/ aldaketa

1.2- Ukipen egoeran dauden hizkuntzen funtzionamendua
atzerriko hizkuntzaren galera
bertako hizkuntzaren galera
bertako eta atzerriko hizkuntzak mantentzea

2- Hizkuntzaren atzerakada:

2.1- Sistema etnolinguistikoaren dislokazioa

2.2- Atzerakadarekiko joera: arrazoiak

2.3- Hizkuntza heterogeneotasun, giza arazo eta *per capita* produktu osoaren arteko harremanen inguruko estatuen arteko ikuspuntua

3- Hizkuntza eta etnizitatea:

- 3.1- Zer da hizkuntza
- 3.2- Zer da etnizitatea
- 3.3- Etnizitatea eta hizkuntzaren arteko harremana
- 3.4- Gutxitua dagoen hizkuntzaren hedapen etnikoa
- 3.5- Hizkuntzaren planifikazioa

4-Zer da HINBE (Hizkuntza Indarberritzea) eta nola izan dezake arrakasta:

- 4.1- “ mugimendu soziala” edo giza talde baten jokaera
- 4.2- Kulturaren aldaketa eta iraupena
- 4.3- HINBE: nola gauzatu behar den, urrats ezberdinak
- 4.4- Hizkuntza komunitate gutxiagotuen antolaketan izan daitezkeen arazoak
- 4.5- Izaera gutxiagotua duten familietan HINBE prozesua txertatzeko arazoak

ATAL PRAKTIKOA - IKERKETA ENPIRIKOA

1- Esparru ezberdinetako hizkuntz erabilera:

- Ama hizkuntza
- Etxeko hizkuntza
- Eskolako hizkuntza
- Aisialdiko hizkuntza
- Lagunarteko hizkuntza

2- Hizkuntzaren (euskara/gaztelania) ikasketa-prozesua:

Hizkuntza bakoitzarekiko motibazioa / ezagutza / erabilera: naturalak diren edo beste faktore batzuek eragindakoak

3- Hizkuntza bakoitzaren balorazioa:

- Bakoitzarekiko jarrera
- Eremu ezberdinetan erabiltzeko aukera gehien eskaintzen diena
- Alor ezberdinetan euskara erabiltzeko ikusten duten beharra
- Zerekin lotzen dute: euskara / gaztelania

4- Etorkizuna:

- Hizkuntza bakoitzarena
- Beraien hizkuntza erabilpenean
- Jendearen , herriko hizkuntza erabilpenean

5- Ondorioak:

- Euskararen transmisioan etena dago?
- Erabilpen urriak erlazioa du hizkuntza horretan duten gaitasuna eta motibazioekin?
- Euskararekiko / gaztelaniarekiko jarrerak
- Bi hizkuntzen arteko ukipen egoerak eragindako ondorioak

SARRERA

Proiektu honen bidez hizkuntzen transmisio naturalaren inguruan azterketa sakona, eta aldi berean, nire lanerako aberasgarria izan daitekeena burutzea da nire asmoa.

Egitasmoaren helburua ondokoa da: transmisio naturala zer den, nola gauzatzen den, zeintzuk diren honen iraupenaren edo huts egitearen arrazoiak, eta azkeneko hauen kasuan, aurre nola egin daitekeen aztertzea.

Helburu hau lantzeko bide eta teoria ezberdinak daudenez, nik jorratu beharrekoa nola izanen den erabakitzea ez da batere erraza izan, baina, azken egunean adostutakoa egitera ausartuko naiz. Beraz, honako hau izanen da nire lana garatzeko bidea:

- 1.go zatia: atal teorikoa izanen da hau. Bertan, transmisio naturala aztertu duten bi autoreen ikuspuntuak azaltzea izanen da egingen dudana. Txepetxen eta Fishmanen ikuspuntuak gaia honen inguruan zeintzuk diren aztertzen saiatuko naiz.

2.zatia: ikerketa enpirikoa. Ikerketa, bai Larraun-Lekunberriko bai Araitz-Beteluko gaztetxoekin burutzea gustatuko litzaidake, bi eskualdeen arteko ezberdintasunak nabariak baitira arlo honetan.

Transmisio naturala denez sakontze egitasmoaren oinarria, gure zonalde honetan euskararen transmisioan etenik dagoen edo ez, eta gaztetxoek euskararen erabilpen urria hizkuntza horren ezagutzarekin eta hizkuntza horrekiko transmititzen zaizkien baloreekin, motibazioekin loturarik duen aztertzea da nire helburua.

13,14 eta 15 urte bitarteko gaztetxoekin burutu dut ikerketa, adin honetan, euskara alde batera utzi eta gaztelania gero eta gehiago erabiltzeko joera oso nabaria delako. Aurreko urteetan ere gaztelania darabilte, baina, euskarari gehiago eusten diote.

Azterketan adin hauetako gazteak soilik neurtu direnez, txostenean azaltzen diren datuak eta kopuruak beraiei eta beraien guraso eta senitartekoei dagozkiela aintzat hartu beharra dago. Ezin dira kopuru horiek bestelako giza sektoreetara hedatu, ez baitakigu hauengan emaitzak nolakoak diren. Beraz, aztertutako laginari buruzko azalpenak eta ondorioak atera ditut, eta kopuruak lagin horri dagozkionak soilik dira.

Metodologia: denborarekin jokatzeko dugula aintzat hartuta, oso ikerketa motza eta erraz burutzeko izan behar du honek. Hau dela eta, inkesta bidezko ikerketa prozesua burutzea dela egokiena uste dut. Dena den, hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran sakontzeko egokia bada ere, gaztetxoek euskararekiko duten motibazioa, bereganatu dituzten baloreak jasotzeko horren egokia deneko zalantza daukat. Nire ustez, azken kontu hau neurtzeko modurik egokiena eztabaida taldeak osatzea da, baina, honek duen oztopoa ondokoa da: askoz ere denbora eta bitarteko gehiagorik baliatu beharra dagoela ongi burutu ahal izateko. Hau da, hain zuzen, nik faltan daukadana. Beraz, ikerketa hasieran zehaztu dudana moduan burutuko dut: inkesta bidez.

1- Ikasketen teoria

Txepetxek dioenez, hizkuntza giza pentsaera, esperientzia eta elkarrekintza soziala mugitzen dituen tresna da. Badu izaera indibiduala, baita soziala ere: (1987, 35.orr.)

“ Podemos comparar un idioma con un vehículo. Es en realidad el vehículo a través del cual circula el pensamiento humano, la experiencia y la interacción social. tiene una dimensión individual, en el sentido de que son sujetos aislados quienes conducen efectivamente las unidades individuales y las desplazan allí hasta donde quieren llegar. Pero es también social, porque depende de la sociedad en muchos de sus aspectos;..... “

Hizkuntza bat oinarrizko hiru faktoreen eraginez ikasten da:

- 1- Motibazioa: hizkuntza bat ikastea edo erabiltzea eragiten duten faktoreak.
- 2- Ezagutza: hizkuntza baten funtzionamenduaz jabetzeko gaitasuna.
- 3- Erabilpena: hizkuntza bat, hizkuntza komunitateak dituen edozein funtziotan erabiltzea.

Hizkuntza ikastera bultzatzen duten oinarrizko hiru arrazoi horiek, bat batekoak (naturalak) edo bestelako faktore batzuek eragindakoa izan daitezke. Honek, hizkuntza bat ikasteko bi modu daudela adierazten digu:

1-Ikasketa primarioa: hizkuntzarekin erabateko harremana izaten da, harreman zuzena. Hau izaten da haurrengan ematen den bidea; honetan, erabilpena, ezagutza eta motibazioa berezkoak izaten dira.

Horregatik, honetan hizkuntza bat edo gehiago egon daitezke, hauek, haurrak garenean ikasten baditugu. Hau gertatzen denean, haurra, jatorriz, elebiduna (bi hizkuntza menperatu) edo hizkuntza gehiagoren jabe dela esan dezakegu.

Ikasketa mota hau A letra erabiliz adierazten du Txepetxek. Bai honetan bai bigarren motako ikasketan, motibazioa, ezagutza eta erabilpena parte hartzen duten ibilbide bat gauzatzen da. Kasu honetan, haurraren hizkuntza ikasketan, prozesua horrelakoa izaten da:

MOTIBAZIOA ⇐ EZAGUTZA ⇐ ERABILPENEA

Haurra hizkuntza erabiltzen hasten denean hasiko da hitz egiten. Hitz egiteko maila jakin bat lortzen duenean, hizkuntza horren funtzionatzeko eraz jabetzen hasiko da. Jabetza gero eta handiagoa denean, hizkuntza horrekiko duen motibazioa ere handituz joanen da; hots, hizkuntzarekiko motibazioa, hura erabiltzeko dituen aukeren araberakoa izanen da.

Haurrak ez badu hizkuntzaren erabilpen maila nahikoa bereganatzen, ez du horren funtzionamendua ulertzeko gaitasun nahikorik eskuratuko eta horren ondorioz, zaila da bere motibazio maila ere nahikoa izatea. Horrela, ez du bereganatzen ari den hizkuntzarekiko motibazio naturala izatea lortuko. Hau guztia dela eta, hizkuntza horrekiko atsekabea sentituko du, horretan duen hutsunea beste hizkuntza batek betetzen hasteko aukera egonik. Hau gauzatzen bada, hizkuntza ordezkatzeko prozesua gertatuko da.

Hutsuneekin bereganatutako hizkuntza, familia hizkuntza bada, horrekiko motibazio ezaren aurrean beste hizkuntza batekiko (normalean bestelako giroetan nagusi dena) motibazioa erakustea gerta daiteke. Honek zera dakar: beste hizkuntza horren erabilpen bakarra izatera iristea, horrela, jatorriz elebiduna den pertsona, bere inguruan eragin gehien duen hizkuntzan elebakar bihurtuz.

Haurrak jatorrizko hizkuntzan erabateko gaitasun linguistikoa lor dezan erabateko motibazio maila bereganatzea ezinbestekoa da. Hots, haurra bere hizkuntzan erabilpen mailarik altuena izatera iritsi behar da halaberrez. Berak ikusten badu ezin duela zenbait eremutan hizkuntza hori erabili (beste hizkuntza batez baliatu behar delako), ama-hizkuntzaren erabilpen mailak ez du erabateko motibazio maila eragingo. Haurraren motibazioa ama-hizkuntzarekiko hizkuntza horren erabilpenak baldintzatuko du.

Txepetxek horrela deskribatzen du hizkuntza bat era naturalean ikasteko prozesua:

Haurra hasten da hizkuntza jakin batekin harremana izaten, bere inguruan daudenen erabiltzen duten hizkuntza bereganatzen hasten denean.. Hizkuntza erabilpenaren bidez jasotzen du, pixkanaka-pixkanaka, mugitzen hasten den eremu linguistikoetan erabiltzen dena, eta eremu linguistiko horiek dagoeneko horietan dauden hizkuntzekin betetzen ditu.

Haurrak hizkuntza ikasten du erabiltzera behartuta sentitzen den unetik. Hasieran hizkuntza hori bere inguruan daudenei (gurasoei, aiton-amonei,...) entzunez ikasten du, ondoren bera erabiltzen hasten da, eta, etengabe, bere inguruan dagoen hizkuntza erabilpenaren arabera egokitzen da. Haurrak ikusten du noraino den kapaz gauza bat edo beste hizkuntza horretan adierazteko. Hizkuntza hori gero eta erabilgarriagoa dela sumatzen badu, horrekiko atxikimendua ere gero eta handiagoa izanen da.

Bere inguruan hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen badira, haurrak ez du arazorik izanen guztiak bereganatzeko. Arazoa ondokoa da: haurrak hizkuntza batean erabateko gaitasuna garatu ahal izateko hizkuntza hori erabiltzeko aukera izan behar duela. Gizartean erabilpen maila nahikoa izanen duen hizkuntza da haurrak jatorrizko hizkuntza gisa bereganatuko duena.

Hizkuntza bat erabiltzeko aukerak gehitzen diren heinean behar gehiago sortzen dira hizkuntza horretan; hauek betetzeko ahalegina egitean hizkuntza horren erabilpena handitzen da, eta honen ondorioz, hizkuntza horrekiko gaitasuna eta motibazioa ere.

Noiz lortzen da erabateko motibazio maila?

Txepetxek dioenez, motibazioak beregain hartzen duenean ezagutza eta erabilpen maila nahikoa. Jatorrizko hiztunak une horretan hizkuntza horretan pentsatzen jarraituko du, eta horren erabilpena gauzatuko du eremu linguistiko jakinetan (familia, gainerako jatorrizko hiztunekin harremanak izateko, arlo kultural ezberdinetan: irakurketa, idazmena,...).

Haurrak erabateko motibazioa lortuko du hizkuntza horren gaitasun kulturala, nahiz txikia izan, bereganatzen duenean. Baldin badaude berarentzat ezinbestekoak diren eremuak, zeintzuetan (arrazoi ezberdinak direla medio) ama-hizkuntza erabiltzeko arazoak dituen, ez du motibazio maila nahikoa eskuratuko. Honek ondokoa eragin dezake: eremu horiek betetzen dituen beste hizkuntza batengana jotzea, hizkuntza ordezkapen prozesua martxan jarri eta honen ikasketa prozesua bigarren motatakoa izanen delarik: kulturala.

Hiztunak jatorrizko hizkuntzarekiko erabateko motibazioa izan dezan, gizartean, normaltasunez jokatu ahal izateko beharrezkoak dituen eremu guztietan hizkuntza hori erabiltzeko aukera izan behar du. Bestela, ondokoa gerta daiteke: (1987, 61-62 orr.)

“ Un monolingüe que vierte todos sus usos en su lengua, pero dispone de usos reducidos en relación con otros miembros de la sociedad de su edad y grado de instrucción a los que él mismo se equipara, puede guardar un enorme resentimiento hacia su único idioma al que culpa de los obstáculos que encuentra para el ascenso y la relación social. Permanecerá toda su vida como monolingüe reflejo: éste es en efecto aquél que usa su idioma limitadamente y lo percibe incompletamente Estos monolingües tienen, a pesar de su monoglotismo, una gran influencia en el proceso de sustitución lingüística porque provocan una quiebra en el proceso natural de transmisión. “

Honengatik guztiatik Txepetxek ezinbestekoa ikusten du hizkuntza komunitate batek bere jatorrizko hizkuntzaren erabilpena erabatekoa izateko baliabideak eskaintzea, baita bestelako harremanetan erabili beharko dituzten hizkuntzak ikasteko aukera izatea. Dena den, kontu handiz ibili behar da hizkuntza atzeritarraren erabilpena hizkuntza komunitatea egituratzen duten arloetan ez gertatzeko.

Jatorrizko hiztunak hizkuntza erabiltzeko ezinbestekoak dituen esparruak bereganatzen dituenan, hizkuntzak dituen bestelako erabilpen esparruetan murgiltzeko beharra sumatuko du: hizkuntza literarioa, erregistro bereziak,...

Orduan hasiko da ama-hizkuntza ikasteko bigarren bidea: bere sortzeko hizkuntzan erabateko gaitasun kulturala bereganatu nahiko du. Honek esan nahi du hizkuntzak berak dituen erregistro ezberdinek duten funtzio eta baloreaz jabetzen dela, eta horren erabilpena erabakitzeko gaitasuna handiagoa izanen dela. Hizkuntza horren funtzio linguistiko berriak (kulturalak, formalak) eskuratu dituenan, ikasketa prozesu biak garatu dituela esan daiteke. Hau izango da egoerarik hoberena hizkuntza baten iraupena ziurtatzeko: hizkuntza hori gizarte bizitzako funtzio guztietan erabiltzeko aukera izanen da, honek hizkuntza ezagutza osoa izatea eraginen du.

Honen guztiaren ondorioa ondokoa izanen da: ama-hizkuntzarekiko motibazioa, balorazioa erabatekoa izatea lortu duela hitzunak.

2-Ikasketa sekundarioa: pertsona gazte edo heldu batek hizkuntza bat ikasiz lortzen duena. Ikasketa mota hau gazte edo eta helduengan gertatzen da eta B ikurrarekin identifikatzen du Txepetxek. Kasu honetan, hizkuntzaren ikasketa prozesua haurtzaroan gertatzen denaren kontrakoa da:

MOTIBAZIOA ⇒ EZAGUTZA ⇒ ERABILERA

Hizkuntza hori ikasteko motibazio, arrazoiren jakin bat dauka pertsonak: familiarra, kulturala, politikoa,...

Motibazio hau kanpoko faktore batek eragindakoa da, beraz. Honek eragiten dio pertsona horri hizkuntza ikasteko nahia, eta behin ezagutza maila nahikoa lortuta, gaitasun hori hizkuntzaren erabilpenean gauzatuko da. Hizkuntza bizitzan gertatzen diren egoera konkretu eta benetakoetan erabiliko du pertsona horrek. Pertsona batek hizkuntza jakin bat ikasteko erabakia hartzeko ezinbestekoa da hizkuntza horrekiko bere motibazioa erabat barneratua izatea. Aldi berean, behin hizkuntza horren mekanismoaz jabetzen hasita, gaitasun hori erabilpenean bilaka dadin gutxieneko ezagutza maila lortu beharra dauka. Ikusten badu hizkuntza ez duela menperatzen, lotsa sentituko du hitz egiterakoan, eta honek, hizkuntza horrekiko konfiantza eza eraginen du berarengan. Honek guztiak, hizkuntza horrekiko hasieran zuen motibazioa desagertzea ere eragin dezake. Beraz, ikasitako hizkuntzan nahikotasun maila lor dezan, beharrezkoa da hizkuntza horren erabilpenean arazorik ez izatea; hots, hizkuntzaren erabilera naturala, bat-batekoa lortzea. Hitzunak ez badu hizkuntza horrekiko motibazioan nahikotasun maila lortu, ez du erabilpen naturala izateko bidean topatuko dituen oztopoak gainditzeko presio nahikoa izanen.

Jatorriz ama-hizkuntza Y (gaztelania) duen pertsona batek X (euskara) hizkuntza ikasteko prozesua horrela burutzen du: edozein arrazoik (familia, pertsonala, lanbidea, soziala,...) eraginda pertsona horrek X hizkuntza ikasteko beharra edo nahia dauka. Motibatua sentitzen denez hizkuntza hori ikasten hasten da. Hizkuntza jakin batekiko duen motibazioak ez badio hizkuntza hori ikasteko grina sorrarazten, ez dela motibazio maila nahikoa esan beharra dago. Hizkuntza hori ikasteko grina sorrarazten badio, berriz, motibazioan nahikotasun maila lortu duela esan daiteke.

Hizkuntzaren funtzionamendua ikasten hasi eta horren ondorioz lortutako ezagutza benetako egoeratan aplikatzeko aukera dagoenean, ezagutzan nahikotasun maila lortu dela esan daiteke. Orduan, ikasitako hizkuntza erabiltzen hasten da pertsona hori bizitzako egoera arruntetan. Hizkuntza gero eta gehiago erabiltzen badu, bere gaitasuna handituko da eta, horren ondorioz, hizkuntza horrekiko motibazioa ere sakonagoa izanen da.

Noiz lortzen da nahikotasun maila erabileran?

Txepetxek dioenez, hizkuntza hori erabiltzeko aukerak eta maiztasunak hasierako motibazioa, eta pertsona horrek dagoeneko bereganatu duen ezagutza mantentzen direnean. Dena den, Dena den, bigarren hizkuntza baten erabilera egoerak motibazioaren eta ezagutzaren menpe daudela dio Txepetxek. Motibazioa mugatua bada, hizkuntzaren erabilera ere mugatua izanen da; hiztunak ados egon behar du bereganatu duen ezagutza mailarekin. Hau ere mugatua izanen baita. Aldiz, motibazioa arras zabala bada, hiztunak ahalik eta gehien zabaldu behar du hizkuntzaren erabilpena, eta horretarako beharrezkoak dituen hizkuntza mekanismoak bereganatu beharko ditu. Askotan, atsekabea motibazio maila pertsonala eta benetako erabilera maila bat ez datozelako sortzen da.

Hiztunak eguneroko bizitzako hainbat funtzio ikasitako hizkuntzan betetzeko beharra izan behar du, ahalik eta erabilera mailarik handiena bereganatu behar du bere motibazio maila ere handia izan dadin. Funtzio horiek hizkuntza horren jatorrizko hiztunak dagoeneko bete ahal dituenak izanen dira hasieran; hizkuntza horren ezagutza maila zuzena lortzeko funtzio sozialak hain zuzen.

Oinarria zein den oso argi dago Txepetxek ustez: familia giroan (etxean, lagunartean,...) ikasitako hizkuntza erabiltzeko gero eta aukera gutxiago badira, eragindako erabilpena handiagoa behar du izan bestelako eremuetan (kalean, lanean,...), hiztunak duen erabilpen mailak hizkuntza horrekiko motibazioa eta gaitasuna mantendu ahal izateko.

Berdin gertatzen da kontrako egoeran: gizarteak ez badio aukerarik eskaintzen ikasitako hizkuntzan funtzionatu ahal izateko, etxean, lagunartean, lortu beharko du hizkuntza horretan erabilpen maila nahikoa.

Honek guztiak ondokoa beharko du: ikasitako hizkuntza erabiltzeko aukera mugatua izanik, hiztunak etengabeko ikasketa prozesua jarraitu beharko duela.

Egoera honetan dagoen hiztuna elebiduna da: funtzio batzuk hizkuntza baten bidez eta beste batzuk beste hizkuntzaren bidez betetzen ditu.

Jatorrizko hizkuntza eta ikasitako hizkuntzaren arteko oreka lortzen duenean, ezinbestekoa da bigarrenak erabilera eremu berriak bereganatzea. Hau gertatzen denean ikasketa sekundarioaren inbertsio fasea hasten da:

Prozesua kontrako bidean funtzionatzen hasten da, ibilbide naturala izanen balitz bezala. Sortze prozesua da honako hau, erabilerak baldintzatuko duena. Momentu honetan zera gertatzen da: ikasitako hizkuntzan erabilera esparru formalak bete ondoren, hizkuntza hori esparru pertsonaletan, naturalagoak direnetan sartzen da. Hau da, pentsamendu hizkuntza bihurtzen da. Hiztunak gero eta erabilera mota naturalagoak direnak bereganatzen ditu.

Prozesu hau erabatekoa denean, gaitasun naturala nahikoa da, eta motibazioa naturala da: ikasitako hizkuntza ama-hizkuntza balitz bezala maite da.

Puntu honetara iristen denean, hiztuna bigarren hizkuntza horretan sortzezko hiztun kulturizatua bihurtu da. Hizkuntza horrekiko motibazio naturala eta kulturala izanen ditu, baita funtzio natural eta kultural gehienak beteko dituen erabilera maila ere.

Hizkuntza baten ikasketen teoriarekin amaitzeko aztertu dituen hauek alderantzizko prozesuak direla argi dauka Txepetxek: (1987, 40. orr.)

“ Como los dos aprendizajes son procesos inversos, para que el sujeto sometido a un aprendizaje lingüístico natural alcance el nivel global de suficiencia en la lengua (.....) es necesario que alcance un nivel suficiente de motivación: esto es, una conciencia lingüística. Por su parte, el sujeto sometido a un aprendizaje lingüístico tardío alcance un nivel global de suficiencia en la lengua aprendida (.....) es necesario que logre un uso lingüístico suficiente: esto es, un uso espontáneo.”

Hau da, haurrak bere jatorrizko hizkuntzan hizkuntza kontzientzia bereganatu dezan, eta helduak bere bigarren hizkuntzan bat-bateko erabilera maila lor dezan, ezinbestekoa da lehenengoak hizkuntzaren erabilera mailarik altuena, eta bigarrenak motibazio mailarik altuena izatea.

Haurrak ezin badu bere ama-hizkuntza erabilera esparru jakin batzuetan (komunikabideak,...) erabili beste hizkuntza batek betetzen dituelako, jatorrizko hizkuntza horren erabilera maila ez da nahikoa izanen hizkuntza horrekiko motibazio maila nahikoa mantentzeko.

Bestalde, helduak ez badu ikasitako hizkuntzan motibazio mailarik altuena adierazten, ez du lortuko hizkuntza horretan bat-bateko erabilera mailarik; motibazioak ez baitu hizkuntza hori ikasteko benetako beharra eta behar pertsonalarekin bat egiten.

Horrela adierazten du Txepetxek bi ikasketa prozesu hauen garapena:

HELDU IKASTEA

Motibapena	ezagutza	erabilpena
G''	F''	E''
ý		↙
G'	F'	E'
Motibapena	ezagutza	erabilpena

HAUR ESKUHARTZEA

Ikasketa naturalari (A) ibilbidea dagokio: erabilpenetik hasi eta motibazioan amaitzen da. Haurrak motibazio mailarik altuena lortzeko erabilpen mailarik altuena garatu behar du.

Ikasketa sekundarioari (B) ibilbidea dagokio: motibaziotik hasi eta erabilpenean amaitzen da. Helduak erabilpen mailarik altuena lortzeko bere motibazioa mailarik gorenean izan behar du.

Bi ikasketa prozesuak batuz zirkuitu bat osatzen da, eta honek, hizkuntza baten erabateko ikasketa prozesua adierazten du. Hizkuntzaren ikasketa prozesu naturaletik hasita (AB) , edo prozesu sekundariotik hasita (BA) gauzatu daiteke.

Hiztunak erabateko gaitasuna izanen du hizkuntza batean bat-batekotasunetik abiatuta erabilera kultural ezberdinak bereganatzea lortzen duenean, baita, heldua denean, hizkuntza bat ikasteko duen motibazio kulturalak eraginda, bat-bateko erabilera maila lortzen duenean ere.

Lehenengo taldeko hiztunei jatorrizko hiztun kulturizatuak izena ematen die Txepetxek eta bigarren taldekoei, heldu bertakotuak.

Hizkuntza baten hiztun osoak bi talde hauetako hiztunen erkaketaz lortzen dira. Hiztun osoek hizkuntza baten gune sinbolikoa osatzen dute: gune sinbolikoa hizkuntza komunitatearen oinarria da. Jatorrizko hizkuntzan erabateko garapena lortzen duten hiztunek osatzen dute gune sinbolikoa.

Beraz, bi ikasketa prozesu hauek alderantzizkoak, eta aldi berean, osagarriak dira. Hizkuntza bateko hiztun osoa izateko hizkuntza horren gaitasun naturalaz eta kulturalaz jabetzea ezinbestekoa da; gaitasun osoa mantentzeko hizkuntzaren erabilpena edozein esparrutan, eta aldi berean, hizkuntza kontzientzia sakona izatea ezinbestekoak dira. Hiztunak bi ikasketa prozesuak bereganatzen dituenean soilik lortuko du erabateko gaitasuna hizkuntza batean.

2- Hizkuntzaren esparruak eta funtzioak

2.1- Hizkuntzaren esparruak eta funtzioak:

Atal honi hasiera emateko, Txepetxek oso argi azaltzen du hizkuntza ezberdinen balorazio soziala, horien ospea eta hizkuntza bakoitzak gizartean betetzen dituen funtzioen arabera dela. Ospea ez da giza balore bat; hizkuntza batek nazioarte mailan duen ospe orokorraren, eta hiztun jakin batek hizkuntza hori bera bizi duen egoeraren artean giza talde ezberdinen jarduerak eragina dauka. Talde hauek ideia, asmo, interes ezberdinak dituztenez, hizkuntza ere modu diferenteetan baloratuko dute batzuek eta besteek. Giza taldeen aurkakotasunak, hauek hierarkia harreman mota ezberdinetan (nagusitasuna/mendekotasuna) kokaturik egoteak, hizkuntzekiko borroka eragiten du, eta honek guztiak hizkuntza ezberdinen ospea, balorazioa eta hauek eremu ezberdinetan duten hedapena prozesu dinamikoa izatea dakar.

Hizkuntza guztiak etengabeko borroka batean ari dira, hauek ezberdinak izatea eragiten duen arrazoiak bakoitzak borroka hori zein esparrutan garatzen duen da. Txepetxek, hizkuntza baten oinarriko zazpi funtzioek dituzten esparruak ondokoak direla dio:

Nazioarteko hizkuntzaren funtzioa
Zibilizazio edo kultur hizkuntzaren funtzioa
Nazio hizkuntzaren funtzioa
Herri hizkuntzaren funtzioa
Lan hizkuntzaren funtzioa
Familia hizkuntzaren funtzioa
Identitate hizkuntzaren funtzioa

Zazpi funtzio hauetatik azkeneko biak (familia hizkuntza eta identitate hizkuntza) gaitasun naturalaren arabera dira. Hizkuntza batek ez badu ama-hizkuntzat hartzen duen hiztunik, bi funtzio horiek ez dira gauzatzen.

Goiko bi funtzioek, ordea, ikasketa sekundarioan dute oinarria. Hizkuntza bat zibilizazio eta nazioarteko kultur hizkuntza izateko, ezinbestekoa da ama-hizkuntza beste bat duten hiztun taldeek bigarren hizkuntza gisa ikastea, jatorrizko hiztunek beste hizkuntza batzuk ikasten duten bezala; eta, aldi berean, zibilizazio hizkuntza ezberdinak batzeko oinarria izan behar da.

Hizkuntzaren egoera soziala Txepetxek aipatutako mailakatze horretan betetzen duen funtzioaren arabera izanen da: osperik handiena nazioarteko hizkuntza gisa (ingelesa) funtzionatzen dutenek izanen dute; ondoren, nazioarteko kultur hizkuntza gisa funtzionatzen dutenak daude; hauen atzetik, nazio hizkuntza direnak, herri hizkuntza direnak, lan hizkuntza direnak eta, azken postutan, familia eta identitate hizkuntza direnak.

Hau guztia ikusita honako ondorioak ateratzen ditu Txepetxek:

- 1- Hizkuntza guztiak borrokan daude hauen erabilpenari buruzko nazioarteko baldintzak ez badira aldatzen.
- 2- Hizkuntza bat kultur hizkuntza gisa baloratua izateko, nazio hizkuntzaren funtzioa bereganatu behar du.

Hizkuntzak, berez, kultura dira, baina hiztunak kultur hizkuntzat hartzeko, ezinbestekoa da hizkuntzaren eta jatorrizko hiztunen artean dauden giza taldeek nazio hizkuntza bati dagozkion funtzioak hizkuntza horretan betetzea. Hizkuntza komunitateak, berak, ez badu bere hizkuntza kultur hizkuntza bezala baloratzen, ezin da pentsatu bestelako hizkuntza komunitateek horrela baloratuko dutenik. Horren ondorioz, ondoko hizkuntza komunitatearen hizkuntzak bertakoa baztertu du, eta bera izanen da nazio hizkuntzaren funtzioa beteko duena. Beraz, edozein hizkuntza komunitatearen biziraupenerako ezinbesteko baldintza da bere hizkuntza, gutxienez, nazio hizkuntza gisa funtzionatzea. Jatorrizko hizkuntza nazio hizkuntza izateko beharra sumatzen denean, orduan ere, kultur hizkuntza bezala ikusiko dute hiztunek (kultura hizkuntza horren bidez gauzatuko delako).

Txepetxek horrela deskribatzen du kultur hizkuntzaren izaera: (1987, 83. orr.)

“ El valor de lengua de cultura de una lengua dada es la suma de las dos perspectivas: de la percepción que tienen sus nativos como lengua que canaliza el pensamiento y la información humana en el momento histórico presente, y del uso que hacen de ella los no-nativos que la aprenden como lengua extranjera. La suma de esta percepción y este uso, combinados, otorga un peso específico a dicha lengua dentro de la comunidad internacional. Es decir, una motivación.”

Jatorrizko hiztunen jarrerak asko baldintzatzen du hizkuntza baten izaera, baina, **zer gertatzen da jatorrizko hiztunak ez direnak hizkuntza horrek gramatikarik ez duela diotenean?**

Jatorrizko hizkuntza komunitateak irtenbide bakar bat duela Txepetxen ustez: bere ezagutzan, hizkuntza gaitasunean oinarritu, bere hizkuntza kultur hizkuntza gisa baloratuz, eta egoera horretatik abiatuta hizkuntza horren erabilpenari buruzko nazioarteko baldintzak aldatzeko saiakera egin.

2.2- Oreka linguistikoa:

(1987, 85. orr.)

“ el equilibrio lingüístico debe estar basado en una sincera valoración de todas las lenguas humanas como instrumentos y manifestaciones irremplazables de la experiencia y el saber humano: valoración que desemboque en relaciones equitativas de aprendizaje y uso entre las diferentes comunidades lingüísticas. Y paralelamente en el hallazgo (...) de la lengua internacional, o lengua de intercambio mutuo, que siendo lengua común a todos no lo sea en particular de ninguna comunidad concreta.”

Txepetxen ustez hau da hizkuntzen arteko oreka: nazioarteko hizkuntza gainerako hizkuntzei tratamendu berbera emanaz bakarrik gauza daiteke, eta jatorrizko hizkuntzekin alderatuta ezberdina izanen da. Modu honetan, hizkuntza baten identitate funtzioa hizkuntza horren jabetze naturalaren arabera izanen da. Hizkuntza baten zibilizazio funtzioa, ordea, jatorrizko hiztunak ez direnak bigarren hizkuntza gisa ikastearen arabera. Hizkuntza komunitateak ziurtatu beharra dauka, batetik, hizkuntzaren didaktika ama-hizkuntza gisa, eta bestetik, bigarren hizkuntza gisa.

(1987, 96. orr.)

“ Ateniéndonos al Euskara parece evidente que sólo si se consolida un aprendizaje del idioma por parte de no nativos (simultáneo, por supuesto, a su adquisición cultural por los nativos) puede el Euskara consolidar automáticamente su posición como lengua nacional. Si este aprendizaje no se pone en marcha y avanza, el erdara seguirá

desplazando al Euskara en su propio suelo de la función de estandar nacional, y lo irá relegando a funciones socialmente cada vez más restrictivas: primero a la función dialectal/local, más tarde a la función de simple jerga o argot, luego habla familiar de unos pocos, y en fin infralengua: lengua de una identidad compartida de alguien que esconde su condición de bilingüe negándose a exteriorizar en público la marca que estigmatiza socialmente.”

Oreka linguistikoa, hiztun mailan, bi ibilbide ezberdinek osatzen dutela ikusi dugu aurreko atalean: $A + B / B + A$

Hizkuntza baten oreka linguistikoa ere bi zirkuituk osatzen dute: AB / BA

Badira jatorrizko hiztunak beren hizkuntzan ez dutenak B ibilbidea burutzen: ez dutenak gaitasun kulturala bereganatzen.

Bestalde, hizkuntza bat ikasketa sekundarioaren bidez ikasitakoen artean, badira A ibilbidea burutzen ez dutenak: bat-bateko erabilpena, erabilpen naturala ez dutenak bereganatzen.

Hizkuntza baten ikasketa prozesuan bost talde soziolinguistiko daudela esan daiteke:

- 1- AB : jatorrizko hiztun kulturizatuak
- 2- BA : heldu bertakotuak
- 3- A : jatorrizko hiztun primarioak
- 4- B : hizkuntza ikasten ari diren hiztunak: hiztun berriak
- 5- O : Hizkuntza ez dakitenak

Lehenengo bi taldeek hizkuntzaren gune sinbolikoa osatzen dute, hizkuntza horretan gaitasun naturala eta kulturala bereganatu dute.

Hirugarren taldekoak ez dira oso seguruak hizkuntzarako; lehenengo eta bigarren taldeetako hiztunak ez baldin badituzte beharrezkoak diren funtzioak betetzen, talde horretan mantentzen dira, eta laugarren taldekoak izatera pasatzen dira.

Azkenik, laugarren taldekoek, harremanak egiteko eremua osatzen dute. Hiztun hauek guztiak elebidunak dira, nahiz eta maila diferenteak egon honetan. Hauek baldintza batzuk behar dituzte, horien artean ondokoa: hizkuntzaren ikasketak jatorrizko hiztun ez osoekin harremanak izateko gaitasuna eskaintzea. Horrela, ikasitako hizkuntza horretan garatu gabeko funtzioak garatzen dituzte, hizkuntzaren ikasketan aurreratzen dute, eta batzuetan, A ibilbidea bereganatu dezakete, hiztun oso kulturizatuak eta hizkuntzaren gune sinbolikoaren partaide bihurtuz.

Modu honetan, jatorrizko hiztun kulturizatuak euskaldun berriaren hizkuntza erabilpena egoera ez-formaletan ulertuko du, eta euskaldun berriak, jatorrizko hizkuntzaren hainbat aldagai ulertzeko aukera izanen du hizkuntzaren forma naturalak bereganatuz..

Ondokoa da, beraz, Txepetxen ustetan, oinarritzko ezberdintasuna bi ikasketa prozesuen artean: ikasketa primarioan pertsona talde gisa hartzen da. Ikasketa sekundarioan, berriz, talde eta pertsona gisa hartzen da.

Garapenaren funtsa bi alderdiak bat egitean datza; horrela, hau lortzen duten heldu euskaldun berriek motibazio mailarik altuena izanen dute hizkuntza horretan, eta sortzeko hiztun zaharrek, egoera hau bereganatzen badute, hizkuntza gaitasun mailarik handiena izanen dute hizkuntza horretan.

Osagarriak diren bi alderdi hauek hizkuntza baten bizitzaren eta orekaren maila orokorra osatzen dute.

3- Hitzun motak eta hizkuntza komunitatearen egitura

3.1- Hitzun motak. Hizkuntzen egoera (A, B, AB, BA, O)

Orain arte ikusitakoaren arabera, hizkuntza bakoitzean bi ikasketa prozesu burutu daitezke, eta herrialde berean bi hizkuntza elkarrekin bizi direla aintzat hartuta, Txepetxek L1 izena jartzen dio bertako hizkuntzari eta L2 kanpotik ezarritakoari. Bestalde, A ikasketa prozesua, naturala izanen da, eta B sekundarioa.

Lau elementu hauen erkaketa posibleak zortzi dira; hauetako bakoitzak hizkuntza jarrera diferente bat adierazten du:

	L1	L2
Elebakardunak.....	A.....	O
.....	AB.....	O
Erdi elebidunak.....	A.....	A
.....	A.....	B
Elebidunak.....	A.....	AB
.....	AB.....	A
.....	AB.....	B
Bizelebidunak.....	AB.....	AB

A/O hitzunek jatorrizko hizkuntzan ikasketa prozesu primarioa soilik bereganatu dute, eta AB/O hitzunek primarioa eta sekundarioa bereganatu dituzte.

A/A hiztunek bereganatu dituzten bi hizkuntzetan lehenengo ibilbidea garatu dute bakarrik: naturala, primarioa.

AB hiztunek jatorrizko hizkuntzan ikasketa naturala eta bigarren hizkuntzan sekundarioa garatu dute.

A/AB hiztunak hiztun osoak dira bigarren hizkuntzan , jatorrizko hizkuntzan, berriz, ikasketa primarioa bakarrik bereganatu dute.

AB/A hiztunak hiztun osoak dira ama-hizkuntzan eta bigarren hizkuntzan ikasketa primarioa soilik garatu dute.

AB/B hiztunak hiztun osoak dira ama-hizkuntzan eta ikasitako hizkuntzan bigarren ibilbidea bakarrik bereganatu dute.

AB/AB hiztunak hiztun osoak dira bai jatorrizko hizkuntzan bai bigarreanean.

Hizkuntzaren erabilpena zabala den arren bere mugak baditu; ezin da, aldi berean, lurralde berean, hizkuntza komunitate berean eta bi edo hizkuntza gehiagotan berdin landu. Hizkuntza baten egoera arrunta ez denean, oreka lortzeak zera dakar: hizkuntza horren erabilpen eskubideak bereganatzea, eta beste hizkuntzak erabilpen esparruak ematea.

Hizkuntza batek bi oinarri ditu: bere izaera eta bere bizitasuna.

Hizkuntza jabetza bakar gisa, komunitateak duen zerbait berezi gisa baloratu daiteke, baina, hizkuntza hori hurrengo belaunaldiei transmitituko dien hiztun talde oso bat izatearen beharra sumatu gabe. Hau gertatzen bada, komunitate horretako hiztunek ez dute ulertuko hizkuntzaren transmisio osoa, hizkuntza komunitate batu batean, komunitate horretako hiztunen interesa eta eskubidea dela. Baina, gerta daiteke hizkuntzarekiko interesa, horren biziraupenarekin, hitz egiten duen komunitatearen hedatzearekin eta funtzio berrien bidez hiztun berriak lortzearekin harremanatzea.

Txepetxen ustetan honako hau da hau guztiaren irtenbidea: (1987, 175. orr.)

“..... en ambos casos lo que falta es un tercer elemento (14): la idea misma de complementariedad. La complementariedad es el fin, la teología aglutinadora tan impudentemente escamoteada por el utilitarismo contemporáneo(15). El fin del lenguaje es preservarse. El fin de una lengua objetivamente válida para canalizar el pensamiento, la experiencia y la acción humana es materializarse a través de un grupo estructurado de hablantes (la comunidad lingüística) que desarrollen sus potencialidades intrínsecas. El fin de la comunidad lingüística es autorreproducirse. El fin de los hablantes de una comunidad lingüística es ser a través de la lengua que, por representar el impulso de sus antepasados y el proyecto nacional colectivo, les hace ser ellos mismos.”

Hau da, aipatu ditugun bi jarrera horiek osagarriak izatea. Objektiboki baliagarria den hizkuntza bati biziraupen baliagarria eskaini behar zaio.

Hau guztia burutzeko lehenengo urratsa hizkuntzaren ikasketa prozesuen dinamika ulertzea da. Ondoren, hizkuntzaren egoera pertsonala aintzat harturik, tipologia erraza eta praktika ezartzea. Azkenik, hizkuntza horren ezinbesteko aniztasun aberasgarriaz jabetu beharra dago. Hots, Hizkuntza batek bere eremuan erabat gara dadin, ezinbestekoa du hiztun osoen kopururik handiena izatea: hizkuntza sortzez eta kulturalki ezagutu eta erabiltzen duten hiztunak.

Hizkuntza guztiek daukate AB hizkuntza gisa transmititzeko gaitasuna. Giza hizkuntzak ondokoa behar duela dio Txepetxek: hizkuntza komunitate guztiak dagozkien hizkuntzatan osa daitezten.

Orduan, bakarrik, izanen da posible hizkuntza unibertsal batez baliatzea; hizkuntza hau guztion hizkuntza izanen da, baina, aldi berean, bakoitzak bere hizkuntza izanen du:

Unibertsoko hizkuntza (metahizkuntza)	C
Giza hizkuntzak	AB1 AB2 AB3 AB4 AB5 AB6 ABn

Gaur egun estatuak hizkuntza komunitateak ordezkatu dituzte, eta horren ondorioz, boterea dutenen hizkuntza da nagusi. Ondokoa da hizkuntza ordezkapena gertatzeko bidea:

- 1- Hizkuntza komunitatearen mugak estatuak dituen mugekin bat egitea. Horrela, eremu osoa estatuko hizkuntza erabiliko da.
- 2- Estatuko hizkuntza nazioartean zabaltzeko ahaleginak egin.

Bi kasuetan bertako hizkuntzan transmisio osoa lortzeko garapen naturala deuseztatzen da. (1987, 217. orr.)

“ En el centro, en lugar de estar los nativos cultos (euskaldun osoak AB) se incrusta el grupo O: es decir, monolingües erdaldunes. Estos son los que emiten los valores y la ley. Como la ley y los valores (...) se emite en erdara, los propulsores (que, no olvidemos, representan el máximo de motivación) pasan a ser también erdaldunes, o euskaldunes imcompletos (...): pues ellos representan la fidelidad necesaria a los sujetos del grupo O. La transmisión cultural de la lengua, de este modo se extingue, porque queda situada marginalmente”.

Egoera honen aurrean, sortzez hizkuntza hori duten hiztunen egitekoa, hizkuntza erabat transmititu dadin borrokatzea da. (1990, 179. orr.)

“ Pero la sanación no ocurre por transferencia telepática, al menos por ahora. Ocurre si al encontrar en él la explicación autoconsistente de su experiencia histórica, los hablantes se liberan del miedo a ser ellos mismos, y del sentido de culpa, y desde la energía que esa liberación les proporciona, se unen para crear las nuevas formas no agresivas ni manipulativas de estructuración social. Se asocian desde un pacifismo activo y actuante para compactar lingüísticamente la sociedad civil: a la sociedad desde la lengua; a la lengua desde la sociedad cívica.”

3.2- Hizkuntza komunitatearen egitura

Minorizatua dagoen hizkuntza komunitate osoak hizkuntza ordezkapena gertatzea nahi badu, edo ez badago inor hiztunen hizkuntza kontzientzian eragina duena, normalizazioa ez da gauzatuko.

Hiztunak bere hizkuntzaren alde zerbait egitera bultzatzen duen motibazioa behar du, eta ez besteek eginen dutenaren zain gelditu. Jarrera hau hiztun kopuru nahikoak erakusten duenean hizkuntza komunitatean ere zabalduko da.

Honen guztiaren aurrean Txepetxek ondoko galdera planteatzen du:

Zer da hiztun batek bere hizkuntzaren alde egin dezakeena?

Bere ustez, hiztun gehienek erantzuna ondokoa litzateke: hizkuntza hori erabiltzea. Zenbaitek, seme-alabei transmititzea edo harreman mota (idatziz, irakurritz,...) guztietan ere erabiltzea erantzunen luke.

Erantzun hau, Txepetxek arabera, ez litzateke erabat osatua egonen; ondokoa da bere ustez erantzun zehatza: (1987, 233. orr.)

“Lo que todo individuo puede hacer por la lengua es optimizar con respecto a ella su situación lingüística. Optimizar consiste en desplazarse hacia el tipo contiguo que representa su mejor situación dentro de la lengua, y una mejor situación de la lengua dentro de él.”

Hau da, ahalik eta hiztun osoen kopururik handiena behar da, beraiek izan daitezen hizkuntza horren giza kulturaren gune sinbolikoaren sortzaileak. Jatorrizko hiztun kulturizatuak (AB) hizkuntzaren gaitasun mailarik handiena dute, eta hauek hizkuntza giza beharretara egokitzeko prozesuan parte hartzea ezinbestekoa da.

Bestalde, heldu eta gazte bertakotuak (BA) motibazio mailarik handiena durenak dira, eta hauek, hizkuntza kontzientziazio eta kulturaren zabalkunderako kanpainetan parte hartzea oso garrantzitsua da.

Hurrengo urratsa, erabat osatu ez diren hiztunak osatzea eta hizkuntza komunitatean sortzeko hizkuntza galdu duten helduak, edo oraindik sortzeko hizkuntza ikasi ez duten haurrak sortzea izanen da.

Horrela adierazten du Txepetxek hizkuntza komunitatearen osaera:

- Komunitatearen erdigunean : AB hiztunak
- Ondoren: BA hiztunak
- Hurrengo urratsean : A hiztunak
- Azken urratsean : B hiztunak
- Hizkuntza komunitatetik kanpo: O hiztunak

Hizkuntza normalizazioaren oinarrian ezin da helduen hizkuntza optimizazioa soilik jarri. Modu honetan, prozesua oso motela eta segurtasunik gabekoa litzateke. Urrats hori helburu nagusia lortzeko bidea da, baina helburua, berez, ondokoa da: O unetik hasita, hizkuntza baten giza berreskurapena adierazten duen urratsetik hasita, lur eremu horretan jaiotzen diren haur guztiek hizkuntza hori ahalik eta baldintzarik hoberenetan jasotzeko aukera izatea, hizkuntza bere osotasunean bereganatu ahal izatea.

Normalizazioa gauzatzen da hurrek hizkuntzaren transmisio natural eta kulturala baldintzarik egokienetan bereganatzen dutenean. Hizkuntza bat berreskuratzea eta normalizatzea osagarriak diren lau baldintzen arabera da: eremu pertsonala, soziala, lur eremua eta denbora.

Hizkuntza baten normalizazioaren oinarrian ondoko urratsak dauzkagu:

- a) Pertsonaren hizkuntza gaitasuna optimizatzea.
- b) Hizkuntza taldearen artikulazioa optimizatzea, hizkuntzaren transmisio natural eta kulturala eginen duen gune sinbolikoa osatuz.
- c) Hizkuntza kontzientzia optimizatzea, prozesua garapen bide bakar baterantz zuzenduz.
- d) Aurreko hiru optimizazioak prozesu bakar batean batu; honek ondokoa eskatzen du: pertsonaren hizkuntza gaitasuna hobetzea, hizkuntzaren erabilpen soziala hobetzea eta hiztunaren eta hizkuntza komunitatearen motibazioa handitzea.

(1990, 62-63. orr.)

“ Pero si la C.L. globalmente sigue aún desarticulada, esa articulación podría estar fraguándose ahora mismo en el núcleo de hablantes que han recuperado una perspectiva propia de sí mismos, que han recuperado el sentimiento de autorespeto y que han comenzado a hacer aquello que saben que quieren hacer. Si esa perspectiva de sí mismos, en el ámbito del pensamiento estuviera basada en el discurso de la Igualdad, y ese sentimiento se levantara sobre la nivelación y el respeto, y el uno y el otro se orientarían a la voluntad de ser sobre las acciones a seguir, el núcleo no sólo poseería una conciencia lingüística propia y equilibrada a nivel nacional, sino que, a diferencia de aquellas C.Ls. atrapadas en la dialéctica del ataque, tendría equilibrada esa conciencia con el propio Lenguaje Humano (...) o, lo que es lo mismo, con el propio sentido de la vida.”

3.3- Hizkuntza komunitatearen desartikulazioa

(1990, 72-73. orr.)

“ En la vida de un idioma, la pérdida del equilibrio se produce por un debilitamiento primero y luego por una descomposición (desarticulación) del elemento inmunizador o adaptador que es la Comunidad Lingüística. La desarticulación de la Comunidad lingüística en tanto no se ve, no se reconoce y no se concientiza, produce en los hablantes afectados el mismo proceso que activa la enfermedad. Primero produce una negación de la realidad: el individuo no da cuenta de que la enfermedad está ahí y de que es < mortal de necesidad> (...), puesto que él al continuar percibiendo al idioma, en sus interacciones con los otros, sigue viéndose a sí mismo como hablante de dicho idioma. El lapsus temporal que va desde la presencia de la causa, hasta la aparición de los últimos síntomas, en cambio, le impide percibir desde el primer momento que esas interacciones son cada vez más limitadas funcional y cuantitativamente. Y le impide percatarse a tiempo de que el elemento que lo conectaba con su lengua, la comunidad lingüística, está siendo extirpado y sustituido.”

Hizkuntza komunitate baten desartikulazioaren arrazoiak zeintzuk diren aztertzeko, ondoko galdera egiten du Txepetxek:

¿ Qué ocurre a nivel social cuando a una comunidad lingüística se le ahoga su capacidad de expresar y recibir toda la cultura en su propia lengua?

Alde batetik, hizkuntza komunitate horren hizkuntzaren funtzio formalak desagertzen dira, eta ezberdintasun mota hau da boterean daudenek behar dutena honako zehaztapena baieztatzeko: hizkuntza guztiak ez direla berdinak. Beren funtzioak ez dira berdinak; bat gauza denetarako erabili daiteke eta bestea ia ezertarako.

Bestalde, hizkuntza komunitate horretako talde soziolinguistiko ezberdinetan ez da bertako hizkuntzaren ikasketa prozesu sekundarioa burutzen. Beraz, hizkuntza talde guztietan bigarren ikasketa ibilbide mota desagertzen da:

AB – B = A

BA - B = A

A - B = A

B - B = O

O - B = O

Lehenengo hiru taldeetan jatorrizko hizkuntzan hiztun osoak ez direnak soilik egonen dira, eta laugarrena automatikoki sartzen da kanpoko hizkuntza itz egiten dutenen taldean. Honen ondorioz, bi hizkuntzatan izan daitezkeen erkaketa posibleetatik lauk bakarrik izanen lituzkete jatorrizko hizkuntzako hiztunak. Gainerakoak kanpoko hizkuntzako hiztunak osatuko dituzte:

L1	L2
A	O - B = A / O
A	A - B = A / A
A	B - B = A / B
A	AB (edo BA) - B = A / AB (BA)
AB	O - B = A / O
AB	A - B = A / A
AB	B - B = A / B
AB	AB (edo BA) - B = A / AB (BA)

Baztertutako hizkuntzan dauden hiztun taldeetan ez da hiztun osorik izanen, eta honen eraginez, hizkuntza horretako hiztunak beste hizkuntza erabiltzen duten hiztun taldeetan sartzen hasten dira, ondoko bi aukeren artean erabakia hartzeko beharra baitaude:

Edo ama-hizkuntzan hiztun osoa ez izan edo estatuko hizkuntza ofizialean hiztun osoa izan. (1990, 73. orr.)

“ ejemplifica bien la estrategia que sigue el virus infeccioso (estado expansionario) contra el cuerpo infectado (la nación natural) y que consiste en compatibilizar y alternar una represión selectiva, destinada a liquidar al núcleo simbólico de hablantes completos y conscientes del idioma con capacidad de interpretar la situación y explicársela a otros, con una tolerancia ficticia dirigida a la periferia desarticulada de hablantes no completos, que se basa en esta premisa: <Habla tu lengua, con talde permanecer analfabeto, y por tanto carente de derechos cívicos y objeto de desprecio social e institucional>. O: <alfabetízate y hazte ciudadano, a costa de dejar atrás tu impresentable identidad natural>.”

Bestalde, nagusitu den hizkuntza komunitatea osatzen duten hiztunak, nahiz eta bertako hizkuntzan ikasketa prozesua hasi, bere hizkuntza komunitateko elebakarrekin batzen dira.

Bi hizkuntzen arteko ukipen egoera honek zera dakar: hizkuntza menderatuaren funtzioen galera, hizkuntza menderatzailearen hiztunen aldekarreko elebakartasuna, gutxiagotasun konplexua, hizkuntza komunitatearen desegituraketa, eta bere bideak jorratzea debekatzen dion legezko diskriminazioa. Estatuak hizkuntza kulturalki transmititzeko eskubidea beregain hartzen du. Hortik aurrera, transmitituko den hizkuntza ez da jatorrizko hizkuntza izanen, beraz. Horren ondorioa hizkuntza komunitatearen desartikulazioa izanen da.

Egoera honi aurre egiteko bidea normalizazioa da, eta hau, haustura tentsioa gertatzen denean hasten da. Orduan, hizkuntza komunitate menderatuaren gune sinbolikoaren nuklearizazioa, komunitatearen trinkotzea, legeriaren aldaketa, hizkuntzaren eginkizunen berrirabaztea, eta gutxiagotasun konplexuaren desegitea gertatzen da. Honek, hizkuntza garatu eta hiztunen behar berriei erantzuteko bidea irekitzen du.

3.4- Haustura tentsioa

Honako hauek dira hizkuntza komunitate batean haustura tentsioa gertatzeko oinarrizko baldintzak Txepetxen ustez:

a) Hizkuntzan, talde soziolinguistikoetan eta hiztunengan aldaketa kualitatiboa gertatzea: hizkuntza nazio hizkuntza, bertako kulturaren adierazlea bihurtzea.

Talde soziolinguistikoak jatorrizko hiztun kulturizatuak (AB) eta heldu bertakotuak (BA) osatzen duten gunen sinbolikoaren inguruan batzea.

Hiztunak hizkuntzaren garapen osoa dutenek gunen sinbolikoan parte hartzea. Hizkuntzaren garapen osoa lortu ez dutenek ibilbide osoa burutzea. Hurrek ikasketa primarioa hastea, jatorrizko hiztun primarioek ikasketa prozesu sekundarioa hastea eta erbesteratutako helduen motibazioa garatzea.

b) Hau dena lortzen denean hizkuntza komunitate batu eta dagozkion eskubideen defentsa egiten du: bere hizkuntzaren erabilera osoa eta etenik gabekoa. Hizkuntzak dagozkion lur eremuko funtzio kultural eta formal guztiak bereganatzea eta hiztunek hurrengo belaunaldiei hizkuntza bere osotasunean transmititu ahal izatea.

Laburbilduz, **Zer da haustura tentsioa?** (1987, 393. orr.)

“ Es la ruptura de un círculo vicioso que minoriza a la lengua, la trivializa y, finalmente la extermina. “

Eta nola gertatzen da? (1987, 394. orr.)

“ Pero ello implica dos cosas: una acción decidida y enérgica sobre un punto del círculo, en un momento dado, y una reversión del sentido. Primero la comunidad se compacta, luego presiona sobre el ordenamiento legal que la discrimina (71), a continuación recaptura las funciones en que es deficitaria y ello deshace el complejo de inferioridad y permite focalizar la atención en el trabajo sobre la lengua que la adapta a las nuevas necesidades de sus hablantes.

El punto sobre el que debe aplicarse es el tapón que obstaculiza el paso de la motivación racional en percepción racional de la lengua y de sí mismo a través de la lengua. Consiste en un nuevo discurso que al descubrir de nuevo un sentido perdido aglutina a los hablantes completos, nuclearizando el espacio simbólico de la comunidad y permitiendo su articulación.”

JOSHUA A. FISHMAN

1- Hizkuntzaren iraupena eta etnizitatea

1.1- Hizkuntza prozesuen iraupena/aldaketa. Iraupenaren funtsa: Teoria soziolinguistikoek, oro har, hizkuntzaren, kulturaren, gizartearen eta identitatearen transmisioari buruzko teoria eta eredu bat bilatzea dute oinarritzko helburutzat.

Zentzu honetan, ondokoa da hauen egitekoa: transmisio prozesuak nola gauzatzen diren baita transmisioaren desagertzea edo ahultasuna zergatik gertatu den ere aztertzea.

Hau guztia dela eta, Fishmanek erabiltzen duen oinarritzko kontzeptu bat honako hau da: sistema etnokulturala.

Bere ustez, ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko izendapena eta funtzioen banaketa ez da kanpotik eragindakoa, baizik eta inplikaturik dagoen taldearen ardura.

Hizkuntza prozesu ezberdinen azalpena hizkuntza hori hitz egiten duten pertsonengan (hizkuntza komunitatearengan) aurki dezakegu, hizkuntza komunitate horrek, berez, antolatzeke duen gaitasunarengan.

Minorizatuak dauden hizkuntza komunitateen ezaugarriak ondokoak dira:

- a) Aldaketarako grina, hizkuntza ordezkapenak eragindako arazoekiko interesa eta iraupenaren azterketa baztertzea.
- b) Soziolinguistika kritikoaren bertsio mekanikoenganako joera.

Hizkuntzaren iraupena hizkuntza komunitateak, bere sistema etnokulturala mantentzeko duen indarraren emaitza da. (2001, 12. orr.)

“ El manteniment lingüístic, el procés i el proposit de la continuïtat lingüística intergeneracional, és un reflex del control autocton suficient sobre el procés interactiu continu d'intergrup i de la delimitació d'aquest procés de manera que el sistema etnocultural autocton no siga dominat “

Fishmanek dioenez, nahiz eta hizkuntzaren iraupena ziurtaturik egon, hizkuntza komunitatea behartuta egonen da muga etnokultural zehatzak ezartzera kanpokoan erasoz babesteko. Bere hizkuntza mantendu duten hizkuntza komunitate gehienek, horren transmisioa, familia – lagun – talde giroan oinarritu dute. Hots, giza harremanak lantzeko oinarritzko taldeengan jarri dute hizkuntzaren transmisiorako ardura.

1.2- Ukipen egoeran dauden hizkuntzen funtzionamendua: Hiru dira, Fishmanen ustez, ukipen egoeran dauden bi hizkuntza komunitateengan gerta daitezkeen ondorioak:

- A jatorrizko hizkuntza dutenak dira
- B atzerriko hizkuntza dutenak dira

a) Atzerriko hizkuntzaren galera: $B \rightarrow A = A$

Ukipen egoera izaten denean, atzerriko hizkuntzak topatzen duen oztopo bat ondokoa da: funtzio publiko / formalen galera. Ez da hizkuntza hori funtzio horietan erabilia izatea uzten. Hau da jatorrizko hizkuntzak jartzen duen baldintza.

Arlo honetan, legeek zeresan handia daukate; zenbait estatutan, legeek, hizkuntza jakin batzuk ofizialtzat, nazionaltzat jotzen dituzte, eta beste batzuk, ordea, funtzio jakinetarako soilik balio dute.

Legeen bidez burutzen diren prozesu hauek dira hizkuntzaren iraupenaren edo hizkuntza ordezkapen prozesuen eragile nagusiak. Azken finean, hizkuntzari buruzko legeak (gainerako arloetako legeak bezala), gizakien jokaerak eta jarrerak eragin eta indartzen dituzte.

Dena den, hauek ez dira nahikoak hizkuntzekiko ikusi dugun jarrera eta jokaera eragiteko. Boterean dauden gobernuek ezin izanzen dituzte lege horiek erabili herritarrek, oro har, ez badituzte onartzen, eta horiek ez badira berritzen unean-uneko oinarrizko giza baloreak aintzat hartuz.

Gerta daiteke ere jatorrizko hizkuntza komunitatearen aldeko legeak ez izan arren, hizkuntza komunitate hori erabat osatua eta antolatua egotea, eta atzerriko hizkuntza baztertzeko indar nahikoa izatea. Honen guztiaren emaitza hau da: jatorrizko hiztunek menderatuko dute eta atzerritarrek beraiekin batera jokatuz gero, ekonomian, lanean, gobernuan eta hezkuntzan onurak jasoko dituzte. Hau da, dependentzia soziala gertatuko da; atzerritarren statusa onartuko da, soilik, jatorrizko hizkuntzaren hiztunak badira.

Horiengan hizkuntza ordezkapena gertatzen da orduan. Atzerritarrek ez dute jatorrizko hizkuntza eskolan edo lanean ikasiko, baizik eta familia giroan. Gurasoek seme-alabei erakutsiko diete hizkuntza, hura, atzerritarren ama-hizkuntza ere bihurtuz.

Prozesu hau giza talde guztietan (medikuak, tabernariak, apaizak,...) gertatzen da. Hizkuntza ordezkapena familia giroan eta lagunartean gertatzen denean, bestelako eremuetan ere (eskola, lana, gobernu) gauzatzen da, horrela, onurak egonen baitira.

Gauzak horrela, atzerritarren ama-hizkuntzaren ordezkapena erabatekoa izaten da. Hau ez da bakarrik lur eremu horretan jaiotako belaunaldi berriekin gertatzen, beste herrialdeetatik iristen diren atzerritar guztiekin gauza bera egiten da. Hauek, onurak jasotzeaz gain, bertako herritarrekin harremanak sendotzeko, beraiengana hurbiltzeko beharrezkoa izanen dute jatorrizko hizkuntza.

Modu honetan, hizkuntza eta etnizitateari buruzko eredu berri bat sortu da, zeinean, A izanen da bizitzeko beharrezkoa den hizkuntza eta B kanpokoa, zaharkitua gelditu dena.

b) Jatorrizko hizkuntzaren galera: $B - A = B$

Kasu honetan, arestian aipatu dugun kontrako bidea gertatzen da: atzerritarren hizkuntza (B) da irauten duena, bi hizkuntza komunitateetan indar handiena duena, eta jatorrizko hizkuntza (A) eta hizkuntza komunitatea baztertzen dituena.

Oraingoan, atzerritarrek dira beraien aldeko legeria ezartzen dutenak, eta ekonomian, hezkuntzan eta kulturen nagusi direnak. Bertako hiztunak dira atzerritarren hizkuntzaren transmisioa hurrengo belaunaldietan egiten dutenak.

Badago aurreko egoera eta egoera honen arteko oinarriko ezberdintasun bat:

Edozein motatako hizkuntza ordezkapena dislokazioaren erakuslea da. Aurretik ezarritako giza funtzioen onarpena, hizkuntza harremanen aldaketa, aurretik onartutako arlo eta egoeren aldaketa dakar.

Edozein eratako integrazioa ziurtasuna, ulermena eta identitatearen oinarria eskaintzeko egin behar da.

Jatorrizko hizkuntza nagusi denean, dislokazioa gertatzen da, baina, atzerriko hizkuntza nagusi denean, dislokazio hori zabalagoa izaten da. Konkista, genozidioaren dislokazioa da honako hau. Herritarren birkokatze masiboa gertatzen da eta bertako hiztunak atzerritarrez gairatuz aurkitzen dira.

Badira atzerritarrek jatorrizko hizkuntza komunitatea hiltzeko duten botereari mugak ezartzen dizkietenak. Hauek ere izanen dira hizkuntza eta etnizitatearen aldeko mugimenduen berreskurapena gidatuko dutenak. Hizkuntzaren berreskurapenerako mugimendu hauek saiatzen dira atzerritarrek ezarritako legeriak agindutakoa gairatzen, eta etnizitatearen eta hizkuntza eta etnizitatearen artean dagoen harremanaren alde jokatzeko. Beraien hizkuntza, beraien identitatea berreskuratzeko beharra da honen guztiaren eragilea.

d) Jatorrizko eta atzerriko hizkuntzak mantentzea: $B - A = B + A$

Politika komuna duten funtzio berezietan hizkuntza bat eta bestea. Dena den, itxuraz mantentzen den berdintasun horrek ez du erabat ezabatzen hizkuntza ordezkapen prozesua. Eskualdeak ez dira ekonomikoki baliokideak, eta aberatsagoak diren herritarrek diru gutxiago dutenei era guztietako eskaerak egiten dizkiete.

Ordezkapenak indar handiagoa dauka diglosia soziala gertatzen denean diglosia politikoa edo lurraldekoa gertatzen denean baino.

B $A = B + A$ egoera dagoenean, bi modu ezberdinetan gauzatzen da:

- 1- Batzuek atzerritarren hizkuntza mantenduko dute eguneroko hizkuntza gisa, eta jatorrizko hizkuntza funtzio jakinetan (ospakizunetan, txisteak kontatzeko, brometan,...) soilik erabiliko dute. Honi, A/B egoera deitzen dio Fishmanek.
- 2- Fishmanek B/A egoera deitzen duena: hau da gehien gertatzen dena. Batzuek, atzerritarren hizkuntza funtzio jakinetarako soilik erabiliko dute eta jatorrizko hizkuntza oinarritzko hizkuntza funtzioetarako.

Bi hizkuntzen ukipen egoeran dauden hizkuntza komunitateetan gerta daitezkeen azaldutako hiru egoera hauetan ($B = A / B$ $A = B / B$ $a = B + A$) etnizitatea da ezegonkortasunaren oinarria. Hauetako egoera bakoitzean normaltasuna, naturaltasuna eta zilegitasuna etnikoak izan daitezke bai ezegonkortzaileak bai egiazkotasun etniko egonkortzaileak.

Hiru egoera horiei aurre egiteko sortzen dira, egun, hizkuntzarekiko leialtasuna duten mugimendu asko. Hauek, egoera horiek aldatzeko, salatzeke sortzen dira, baina, batzutan, beraiek proposatutako irtenbidea ez da egokiena izaten. Mugimendu hauen artean bi dira nagusitu diren jarrerak:

- 1- Gobernu ezberdinek hizkuntza gehiago babestu behar dituzte eta horiei funtzio formal gehiago eskaini.
- 2- *Lingu franca* bakarra (ingelesa) ari da gero eta gehiago ekonomian, politikan, hezkuntzan eta bestelako hainbat funtzioetan erabiltzen.

Fishmanek dioenez, munduan B A egoera ezberdinen inguruko tentsioek irauten duten bitartean, gero eta gehiago aztertuko da hizkuntzaren planifikazioa irtenbide bat bilatzeko asmoz.

2-Hizkuntzaren atzerakada

2.1- Sistema etnolinguistikoaren dislokazioa: hizkuntza baten galera edo baztertze prozesua gertatzeko funtsezko kontzeptu bat sistema etnolinguistikoaren dislokazioa da Fishmanen ustez. Gakoa ondokoa da: dislokaturik dauden hizkuntza komunitateak dislokaturik ez daudenen kontra egotea.

Hizkuntza ordezkapena dislokaturik dagoen hizkuntza komunitatean gertatuko den ondorioa izanen da. (2001, 13. orr.)

“ La substitució lingüística de qualsevol tipus (...) és un indicador de la dislocació. Implica el trencament d'una assignació social de funcions previament establida, l'alteració del paper de relacions, de les situacions i dels àmbits previament reconeguts, de manera que aquests ja no comporten ni demanen la llengua amb que els individus estaven previament associats”.

Dislokazioak, hizkuntzari aurretik ezarritako giza funtzioen desagerpena, harremanen, egoeren eta eremuen aldaketa dakar; eta horren ondorioz, hizkuntzaren aldaketa ere gertatzen da.

Era askotakoa izan daiteke dislokazioa: fisikoa, demografikoa, soziala edo kulturala.

Hizkuntza ordezkapena ez da ustekabea, arrazoi jakinik gabe gertatzen. Ukipen egoeran dauden bi hizkuntza komunitateetatik indar handiena duenak ahularen kontra egiten duen eraginaren ondorioa da.

Mehatxaturik bizi diren hizkuntza gehien oinarria, ekialdeko kulturaren jarraitzaile diren komunitateekin batera bizitzea da, azken hauen ezaugarririk zabalena honakoa baita: beste hizkuntza komunitateen bizitzeko ohiturak eta kultura suntsituz hedatzea.

Tamalez, hizkuntza eta giro etnokulturala askotan harremanetan daudela esaten den arren, gerta daiteke hizkuntza komunitate batek bere kultura mantentzea lortu, baina, hizkuntza desagertzeko bidea ezin ezabatzea.

2.2- Atzerakadarekiko joera: arrazoiak : aurreko atalean azaldu dugunaren ondorio bat ofizialak ez diren hizkuntzen galera da.

Atzerakada honek bat egiten du egungo gizarte zientziek dituzten proposamenekin: gaur egungo intelektual asko integrazioaren, asimilazioaren aldekoak dira. Uste dute kulturarik hedatuenak eta indartsuenak hoberenak direla. Horren ondorioz, beraien jokoera ideia horiek garatuz burutzen dute, eta hizkuntza komunitate txiki, ahulen, kontra azaltzen dira.

2.3- Hizkuntza heterogeneotasun giza arazo eta *per capita* barne produktu osoaren arteko harremanen inguruko estatu arteko ikuspuntua:

Fishmanek dioenez, hizkuntza heterogeneotasuna, nazio eta nazio arteko bizitzan baliabide garrantzitsua da; hezkuntzan, ekonomian eta kulturaren onurak eragin ditzakeena.

Munduan garatzen diren hizkuntza politika eredu ezberdinak aztertzean, hizkuntza heterogeneotasuna ez dela onartzen, horren inguruan zalantzak daudela ikus daiteke. Egoera honen aurka azaltzen, lehenak, gobernu eta komunikabideak dira. Hauen argitalpenetan zera adierazten da: hizkuntza heterogeneotasunak giza arazoa handitzen duela batetik, eta bestetik, nazioko produktibitatea gutxitzen duela, zentzuzkotasuna, gizatasuna eta gobernuarekiko leialtasunaren aurkakoa baita.

Honako hau da ideia horien bidez azpimarratzen dutena:

- a) hizkuntza heterogeneotasun maila gero eta handiagoa izan, giza arazoaren maiztasuna eta hedapena ere gero eta handiagoa da.
- b) Hizkuntza heterogeneotasun maila gero eta handiagoa izan, *per capita* barne produktu osoa txikiagoa izanen da.

Munduko estatu guztietan, politikoez, giza arazoa zergatik gertatzen den azaltzeko lau arrazoi ezberdin planteatzen dituzte:

- a) Indarrean dagoen gobernuaren aurkako azpijokoaren maiztasuna handitzea.
- b) Gerra zibilaren maiztasuna handitzea, iraultza eta sezesioaren eraginez.
- c) Barne salaketak handitzea (grebak, ...).
- d) Aurreko hiru puntuetan aipatzen denaren osaera egonkorra.

Ikus daitekeenez, hizkuntza heterogeneotasuna ez da aipatzen diren arrazoiengan azaltzen. Badu korrelazio txiki bat (0'21) giza arazoarekin, baina, horren eragina bestelako arrazoiarekin alderatuta %4koa litzateke. Bestalde, giza arazoa egon behar dela sumatzeko aipatzen diren faktoreetan ezta ere ez da hizkuntza heterogeneotasuna azaltzen. Beraz, arlo honetan duen eragina oso txikia da.

Planteatzen den bigarren arazoaren inguruan ondoko galdera egiten du Fishmanek:

Munduko estatu ezberdinen artean, *per capita* barne produktu osoan dagoen diferentzian, hizkuntza heterogeneotasunak eragin berezia du?

Dirudienez, oraingoan ere, ez da diferentzia horren eragile nagusien artean sartzen. Badu bere eragin propioa (-0'32 puntukoa). Horrek, estatuen artean dagoen diferentziaren %10a azalduko luke soilik.

Honako hauek dira estatuen arteko diferentzia horren eragile nagusienak:

- a) Gobernuaren modernizazioa.
- b) Arautzeko eta idazteko gaitasuna duen adierazlea.
- c) Gobernuan, parlamentuan, ideologia ezberdinak dituzten alderdiak izatea.
- d) Industriaren hedapena eta ez nekazaritzarena.

Hizkuntza heterogeneotasuna oso eragile ahula da. Fishmanen ustez, munduan, hizkuntza heterogeneotasunari dagokionez dagoen diferentzian, eragile nagusienak ondokoak dira:

- a) Estatuko erlijio nagusia katolikoa edo Islam-a izatea.
- b) Erlijioan eta arrazan dagoen homogeneotasun maila.
- c) Estatua antzinako kolonia bat izatea.
- d) Ekialdeko estatua izatea.

Eragile hauek guztiek, ez dute inolako batasunik hizkuntza heterogeneotasunarekin, hizkuntza homogeneotasunaren aldekoak baitira. Giza arazoa eta *per capita* barne produktu osoaren arazoa ez dira eragile horien artean azaltzen.

Honek guztiak zera adierazten du: giza arazoaren eragile nagusia ukapena dela, *per capita* barne produktu osoarena modernizazioa eta garapen etnoerlijiosoa, demografikoa eta politikoa hizkuntza heterogeneotasunaren kontrako eragile nagusienak direla.

Gainera, hiru kontzeptu horien artean harremanik ez dagoela esan daiteke. Hauetako bakoitza, beste biak aintzat hartu gabe, aurreikusi daiteke, zeren eta bakoitzak, beste bien eragina izan dezake. Hau guztia aintzat hartuta Fishmanek ateratzen duen ondorioa honako hau da: *linguae francae* deitzen ditugunak eta elebitasunak posible egiten dutela estatu askok *per capita* barne produktu osoa handitzea eta giza arazoa baztertzea, duten heterogeneotasun mailari esker.

Gaur egun oso herrialde gutxi daude duten hizkuntza heterogeneotasun mailaren eraginez harremanak izateko arazoak dituztenak. Bai eskualde mailako bai nazio mailako elebitasunak, baita nazio hizkuntzaren hedapenak ere, elkarrekintza prozesuak errazten dituzte. Are gehiago, hezkuntzan, hirigintzan, merkataritzan, komunikabideetan eta emigrazioan, hizkuntza gutxiagotuen higadura gutxitzen dute, baita gizartearen testuinguru jakinetan ere, elebitasunaren hedapena nabaria da; hizkuntzak komunitate gutxiagotuaren barnean funtzionatuko du, gutxieneko funtzio batzuk izanen ditu.

Zeintzuk dira hizkuntza heterogeneotasunaren ondorio positiboak?

Orain arteko lana hizkuntza heterogeneotasunaren ondorio negatiboak ezabatzea izan da. Baina, egoera honek ondorio positiboak dituen edo ez ez dugu aztertu.

Fishmanek dioenez, atal hau aztertzean, aintzat izan behar da hizkuntza heterogeneotasuna estatuen arteko dimentsio berezia izan daitekeela. Hortaz, horrek duen maila eta horrekiko erabakitzen den politika berdinak ez izatea gerta daiteke. Beraz, ondoko bi arrazoiak batera hartu behar dira:

- a) Hizkuntza heterogeneotasunari dagozkion politika positiboak.
- b) Hizkuntza heterogeneotasunaren ondorio positibo posibleak.

Fishmanen ustez ondokoak dira:

1.- Hizkuntza nagusia ikasi duten hizkuntza komunitate gutxituaren hiztunen kopurua.

2.- Ikasketa sekundarioak eta goi mailakoak burutu dituzten hizkuntza komunitate gutxiagotuaren hiztunen proportzioa.

3.- Hizkuntza komunitate gutxiagotuan lan egiten duten herritarren proportzioa, eta eskaleen mailatik gora bizi direnen proportzioa.

4.- taldeen arteko harremanen aldeko neurriren bat izatea.

5.- Hizkuntza nagusiko hiztunen artean dagoen alfabetizazio eta elebitasun maila neurtzeko neurriren bat izatea.

3- Hizkuntza eta etnizitatea

3.1- Zer da hizkuntza?

Hizkuntzak ez dira dagozkien kulturen adierazleak soilik. Hauek erabiltzen dituzten herrien eta kulturen adierazleak dira, baina batzuetan, kultura horiek ez dituzte dagozkien hizkuntzak nahiago izaten beste hizkuntzak baino.

Hizkuntza eta kulturaren arteko batasun horretan oinarria dena ondokoa da: eguneroko bizitzan, hizkuntza kultura dela eta legeak, hezkuntza, erlijioa , Gobernuak, politika eta giza antolaketa hura gabe garatzea ezinezkoa dela.

Hizkuntza jakin baten bidez, pertsonaren eta gizartearen pentsamoldea adierazten da. Hizkuntzari, edo hizkuntza jakin bati, buruzko kanpotarren iritzia ez da nahikoa bertakoen esperientzia, horren inguruan, zein den jasotzeko. Eguneroko bizitzan gertatutakoak, lagunen arteko harremanak, seme-alabek, bilobek egiten dutenaren azalpena, hizkuntzaren definizio errealista baten bidez azaldu beharra dago; hizkuntzaren kontzeptu abstraktua, baina aldi berean, elkarrekin harremanak izateko baita gure identitatea zein den adierazteko kontzeptua ere dela azaltzen duen definizioa, hain zuzen.

3.2- Zer da etnizitatea?

Fishmanek dio gaur egungo autore gehienek onartu dutela etnizitatea giza jarrerarekin eta identitatearekin lotzen dela.

Honako fenomeno hau ez dagokien kultura gutxiagotuei soilik, eta ez da, ezinbestean, arazo gehien sortzen dituzten talde etnikoetan bakarrik gertatzen.

Dena den, badira bestelako definizioak ere, horien artean hedatuena ondokoa da: etnizitateak talde bat bestearengandik bereizten dituzten ezaugarri fisiko, afektibo, kognitiboen adierazlea dela; hots, herentzia biologikoa dela.

Fishmanen ustez, etnizitateak herritartasuna adierazten du: osaturik dagoen, kultura propioa duen eta berezia den komunitate baten kide izatea adierazten du.

Partaidetza hori, fisikoki (bioligoa), jarreraren bidez (kulturaliki) eta izaerarekin adierazten da.

Etnizitatea komunitate horren ekintzekin, baloreekin, pentsamoldearekin, jarrera sozialekin lotzen da. Komunitate horren eguneroko bizimoduaren, ohituren, tradizioen, festen adierazlea da. Hortaz, komunitate horrek duen hizkuntzarekin ere harreman estua dauka: Pertsonak hizkuntza ezberdinak dituzten taldeetan batzen badira, eta hauetan, normala den bezala, elebakarren kopurua handia bada, beren jatorrizko hizkuntzak izanen dira talde horren oinarria eta izaera.

3.3- Etnizitatea eta hizkuntzaren arteko harremana

Honen guztiaren oinarrian honako hau kokatzen du Fishmanek: (2001, 255. orr.)

“Els processos de globalització hantingut com a conseqüència nous emfasis sobre els aspectes locals. (...). La fragilitat de la identitat ha subratllat la nostra relació amb un lloc i un poble (específics) (James 1997:xi), ambdós perceptiblement plens d’una llengua específica. Ara el global i l’específic es troben més freqüentment junts, com a identitats parcials (més que no com a exclusives), perquè cadascun contribueix a diferents necessitats socials, emocionals i cognitives que són copresents en els mateixos individus i societats, i que se sent que reclamen les diferents llengües, i que se’n beneficien, perquè els donen l’expressió apropiada”.

Hau da, hizkuntza eta identitate etnikoa elkarrekin erlazionaturik daude: gure identitateak hizkuntza jakin bat erabiltzen den leku eta herri jakin baten partaide garela adierazten digu. Hizkuntzak gure identitate etnikoaren osaeran eragina du, eta aldi berean, gure identitate etnikoak (kulturak, ohiturak, eta abarrek), gure jarreran eta hizkuntza erabiltzeko moduan ere eragina du.

Komunitateari dagokion hizkuntzarekiko harremana, komunitate horren Gobernuak, sistema ezberdinek (hezkuntza,...), Institutioek, literaturak, ekonomiek, funtzionatu ahal izateko garatu beharreko faktorea da.

Etnizitatea eta hizkuntzaren arteko harremana gizartean, uneoro, gertatzen diren aldaketan baitakoa da beti, hauen eta baldintza historikoen arabera baita.

Munduko populazioaren zati handi batek bere hizkuntza eta bere etnizitatea ongi baloratzen du. Dena den, badira ere etnizitateari eta hizkuntzari garrantzia eskasa eskaintzen dizkietenak. Hauek, normalean, hizkuntza komunitate horretan nagusitasuna dutenak izaten dira.

Bi jarrera hauek, batak bestea ordezkatu dezakeela, osagarriak izan daitezkeela, eta batak bestearen arazoak konpondu ditzakeela aintzat hartu behar dute Fishmanen ustez. Talde gisa hartuta, jarrera etnokulturei buruzko ikusmolde osatuagoa eskaini ahal dute. Bereizturik funtzionatzen badute, beraien artean borrokatzeko aukera beti egonen da presente. Dena den, besteei, orain arte beraiek bete izan dituzten funtzioak onartzera prest ez daudenek esanzen dute identitate anitzak eta hizkuntza aniztasunak ez direla arruntak gizakiengan; giza biologiaren aurkakoak direla.

Horrela, elebakartasunak dituen onuren alde egingen dute, eta homogeenak diren identitate etnokulturen alde jokatu dute.

Besteek, autonomia, autodeterminazioaren aldeko apustua egingen dute. Jarrera honen jarraitzaileek ez dute oso kopuru handia osatzen, eta honetaz baliatuz, nagusitasuna dutenek gutxiagoak arazoaren eragileak direla diote, beraiek direla arazoa sorrarazten duten istiluen partaideak.

Bere identitatearen, kulturaren, ohituren aldekoek, bere herria berpizteko eta indartzeko bideari ekinen diote orduan: nazionalismoaren aldeko jarrera hartzen dute.

Fishman dioenez, bi jarrera hauek osagarriak dira. Hauen batuketa garaitu ezin den talde baten isla izanen da. Batuketa honetan, hizkuntza izanen da bidea talde osoa izendatzeko, partaideek harremanak izateko, talde barruko ezaugarria izanen da. Hots, taldearen batasuna adieraziko duen tresna izan behar da hizkuntza.

3.4- Gutxiagoak dagoen hizkuntzaren hedapen etnikoa

Etnizitatearen irudia hizkuntza kontzientziaren bidez hedatzen da normalean. Etnizitatea, hizkuntzari lotua, horrekiko familia harreman gisa soilik antzeman daiteke(2001, 200. orr)

Tamilera hizkuntza horrela deskribatzen da: “ mare (...) capac d’alimentar el coratge i de donar exemple de les autentiques característiques de la raca”.

Nynorsk hizkuntza horrela deskribatzen da: “ la llengua que ens permet cantar tan efusivament al costat de la mare i del pare”.

Baina, Fishmanen ustez, batasun etnikoa ez dagokio familiari bakarrik baizik eta hizkuntza hori mintzatzen duen komunitate osoari. Hizkuntza oinarria da, herria entzuna izateko tresna.

Hizkuntza gizartearen adierazlea da; hizkuntza komunitate jakin bat bestearengandik bereizten dituzten baloreak eta tradizioa adierazten du. Hots, herri baten nazionalitatea eta izaera berezia adierazten du.

Hizkuntza eta herriaren artean dagoen harremana onartzeak, herria eta hizkuntza ulertzeko modua adierazteaz gain, herri, hizkuntza eta sormen guztiak bideratzeko modua da.

Hizkuntza eta etnizitatearen arteko batasuna ez da beti giza arazoetan azaldu. Batzuetan, duen garrantzia izugarri azpimarratu eta politizatu da; egoera honetan, hizkuntza dagokion hizkuntza komunitatean desagertzea oso zaila da, bere indarra berehala berreskuratu baitaiteke mobilizazioaren bidez.

Beste egoera batzuetan, giza talde ezberdinen interesek garrantzia handiagoa izaten dute, eta hizkuntza eta etnizitatearen arteko harremana motelagoa izaten da, nahiz eta egoera honetan ere mantentzen den.

Etnikoki gutxiagotua dagoen hizkuntza batek dituen arazoak bi eratakoak dira Fishmanen ustez:

1. Hizkuntzaren statusari buruzko arazoak.
2. Hizkuntzaren korpusari buruzko arazoak.

Bi arazo hauei aurre egiteko bidea, hizkuntza planifikazioa da bere ustez.

3.5- Hizkuntzaren planifikazioa

Hizkuntza baten statusa hobetzeko saioak iraganean ezarritako gaiztakeriak eta irainak alde batera uztean hasten dira. Garaia batean ezarritako oztopoek eta murrizketek, hizkuntzaren eta hizkuntza hori hitz egiten duen komunitatearen biziraupena zalantzan jartzen dute. Hauetako irain batzuen jatorria etnia bereko beste partaideak izan dira batzuetan, eta besteetan, beste komunitateetako partaideak.

Askotan, maite den hizkuntza ez dela egokia gaur egungo statusa eta helburuak betetzeko esaten da; hizkuntza hori landa eremuetako bizitzarekin eta tradizioekin lotzen da.

Beraz, tentsio bat izaten da, batetik, antzinako arbasoen hizkuntzaren garapena eta honen biziraupena defendatzen dutenen artean, eta bestetik, modernitatean, egungo bizitzan, hizkuntza horrek baliorik ez duela uste dutenen artean.

Dena den, hizkuntzaren statusaren gaurkotzearen aldekoak ez dira pertsona anonimoak, konkretuak, baizik eta mundua, orokorrean, eta hizkuntza horri dagokion komunitatea eta horren babesleak.

Hizkuntza komunitateak estimatzen duen hizkuntzaren gaurkotasunerako bidaiak indarrak hartzen ditu bide guztietatik, eta kolonizatzaileen hizkuntzek duten eskubideen berberen sustapena eta defentsa egiten da. Hizkuntza babestu behar da eta horren sustapena egin. Hizkuntza horren defendatzaileen lana hau izanen da.

Hizkuntzaren statusaren aldaketa hizkuntza komunitateen arteko arazoa izaten da, askotan, hizkuntza komunitateen arteko borrokaren oinarritzko atala bihurtzen da. Gaur egun, jatorrizko dignitatea duten hizkuntzek status ezberdinetako egoerei (lana, merkatua, gobernu, ...) aurre egiteko baliagarriak izan behar dira.

Statusa bezala, korpua ere (ortografia, idazketa, gramatika, fonologia, ...) egungo beharretara egokitzea ezinbestekoa da. Hau burutzea ez da batere erraza: batetik, hizkuntza maite duten eta mantendu duten asko, hizkuntza hori berritzearen kontra azaltzen direlako; eta bestetik, berrikuntza horiek argitalpenen eta ekintza politikoen bidez gauzatu behar direlako.

Statusa hobetzeko egiten den bezala, korpua berritzeko lehenengo urratsa aurkariaren irainak eta oztupoak gainditzea izanen da. Korpusaren planifikazioak zera behar du: estandarizazioa hizkuntza profesionalki berritzeko abileziarekin batzea. Forma tradizionalak baliagarriak dira, bai hiztegiari bai gramatikari dagokienez, hizkuntza komunitateak duen hizkuntza horren izaera mantentzeko, beti ere, hizkuntza gaurkotzea ezinezkoa denaren ustea alde batera uzten bada. Hizkuntzaren garbitasuna, jatortasuna, belaunaldien artean mantendu den ezaugarria da eta hizkuntza berritzeko, gaurkotzeko prozesuan ere mantendu behar da.

Hizkuntzaren korpua berritzeko prozesuan, oinarria, hizkuntza idatzia izanen da, hau baita hizkuntzaren statusa eta korpusaren berrikuntzak lotzen dituen: Gobernuan edo eskolan (statusa) hizkuntza erabili ahal izateko, ezinbestekoa da arlo horiek garatzeko gaitasuna duen hizkuntza (korpua: gramatika, hiztegiak, estilo liburuak, ...) izatea.

Haiek dira hizkuntzaren korpusaren planifikazioak dituen helburuak: hizkuntzak ahalik eta status hobereana lortu ahal izateko, korpua ere ahalik eta modurik osatuenean garatzea.

4- Zer da HINBE (Hizkuntza Indarberritzea) eta nola izan dezake arrakasta

4.1- Giza mugimendua edo giza talde baten jokaera

Fishmanek dioenez, milaka eta milaka lagun daude munduan hizkuntza ordezkapenaren kontrako bidearen alde ahaleginak egiten dituztenak, gutxiagotua dagoen hizkuntza indarberritzearen aldeko mugimenduen partaide gisa.

Giza zientziek eta soziolinguistikak, giza mugimenduak orokorrean eta aldaketa eta protesta mugimendu gisa aztertu dituzte, baina, horien barnean ez dira HINBE saioak sartu.

Gaur egungo giza zientziak hasi dira gizartearen hizkuntza erabilpena eta hizkuntzaren inguruan sortutako jarrerak aintzat hartzen. Hala ere, hizkuntzaren biziberritze, horren berreskurapen eta indarberritzeari buruzko azterketak urriak dira. <gainera, hizkuntzaren statusaren planifikazioa (horren barnean HINBE saioak kokatzen dira) indarrean dagoen Gobernuak egindako lanarekin lotzen da.

Fishmanen ustez, ondokoa da HINBEren azterketa behar den bezala ez egitearen arrazoiak: boterea ez duen komunitate gutxiagotu bat, ezaguna ez dena, arrakastarik ez duena, historikoki naturala, normala den korronteen baita aldaketa sozialaren aurkakoa dena, burutzen duen jarduera izaten dela.

Hizkuntza indarberritzeko saioak, nagusitasuna duen korronteen hutsuneen baita “ezberdinak” direnak beren bizitza propioa bideratzeko eta onura propioak bilatzeko duten grinaren adierazleak dira.

Autore honen ustez, saio hauek gizabanakoek burutu ditzakete, baina, gehienetan, sozialki antolatutako ekintzak izaten dira, eta soziologoek izendatutako giza mugimenduen taldean sartu behar dira.

HINBEren aldeko mugimenduek eta talde gisako mugimenduek ezberdintasun handiak dituzte; lehenengoen helburu jakin batzuk dituzte, antolatuak daude eta jarraikortasunez egiten dute lan. Gainera, kasu gehienetan, normalak diren bide instituzionaletatik kanpo sortzen dira. Normalean, Instituzio horien kontrakoak izaten dira eta Instituzio, organizazio eta antolakuntza propioak ezartzearen alde daude.

Jarrera hau eragiten duten sentimenduak, identitatearen kontzientzia, jatorri bereko pertsonak izatea eta herri bera osatzea dira.

Honengatik guztiagatik, kanpotarrek mugimendu irrazionaltzat eta mistikotzat hartu dituzte, eta boterea daukatenek, giza mugimendutzat hartu beharrean talde jakin baten jarreratzat hartu dituzte. Hauen ustez, etnizitatea, irrazionala eta aurrerabideen aurkakoa da.

Fishmanen ustez, hizkuntza indarberritzeko saioen helburuek, eta horiek lortzeko erabiltzen diren bideek eta tresnek, antza handia daukate biziberritzeko eta kultura aldatzeko mugimenduekin. Azken hauek, beraien gizartetan dauden tresnarik eraginkorrenak erabiltzen dituzte; gizarte hauek aurreratutakoak daude antolakuntzan, instituzioetan, materialetan, eta abarretan , eta horren eraginez, kulturaren aldaketa onartzeko prestatutakoak daude baita bide politikoetan eta ekonomikoetan eragiteko ere.

Hizkuntza indarberritzeko saioek ere, helburuetan baino, helburu horiek burutzeko erabiltzen dituzten baliabideetan ezberdintzen dira beraien aurkariengandik. Oso baliabide urriak dituzte, eta horren ondorioz, eragin sozial handiagoa duten mugimenduak baino arrazionalagoak izaten saiatzen dira.

4.2- Kulturaren aldaketa eta iraupena

Hizkuntza indarberritzeko saioak iraganari begira daudela eta aldaketaren aurkakoak direla ere esan izan da. Fishmanek dio saio hauek oso sentiberak direla, dituzten helburuak ere kontzientziaren eragileak direlako: indarberritu nahi duten hizkuntzaren hiztun kopurua eta kultura etengabe gutxitzearen kontrako saioak dira. Hauekin amaitzeko ahaleginak egiten dituzte, baina, horrek ez du esan nahi beren aurkariak baino atzeratuagoak daudela. Familia arteko harremanak estuagoak egiten dituzten jarrera sozial eta kulturalak defendatzen dituzte, eta errespetuan eta elkarrekin lanean aritzearen aldekoak dira. Beraien ustez, herri komunitateek beren eskolen, osasun etxean, haurrentzako jolas parkeen eta herriaren antolakuntzan parte hartu beharko lukete eta egungo gizartearen masifikazioa eta narriadura gainditu beharko lirateke.

Saio hauek ez dira ahaztutako iragan mistiko baten defendatzaileak soilik, iraupenaren aldeko aldaketaren eragilerak ere dira. Hauentzako, iraupen etnolinguistikoa oinarrian herri horrek erabiltzen duen hizkuntza dago. Hizkuntza identitatearen adierazlea da eta herriaren iraupenerako ezinbestekoa da. Beraien ustez, hizkuntza muga sortzailea eta herriaren babeslea da, oinarrizko limiteak ezartzeaz gain hauek etengabe sortu eta bereak egiten dituelako. Hizkuntza, babestutako oinarrizko kulturarekin loturik dago eta horren aldeko aldaketa burutu behar da.

4.3- HINBE nola gauzatu behar da

Hizkuntza planifikazioaren inguruan proposatu diren teoria gehienek ez dute adierazten, gizarte ezberdinek, belaunaldi ezberdinen artean, beraien jatorrizko hizkuntza mantentzeko egiten duten lana.

Hizkuntza indarberritzeko saioa gerta dadin, belaunaldien arteko giza harremana mantentzen duen, eta harreman hori indartzeko duen hizkuntzaren statusaren planifikazioa egin beharra dago Fishmanen ustez. HINBEren teoriaren egitekorik garrantzitsuenak, dituen lehentasunei aurre egin ahal izateko giza ikuspuntu zabalagoak eskaintzea da.

Mugimendu honek ezin ditu ohikoak diren instituzioek eta nagusitasuna duen korronteak dituzten ideiak zalantzan jarri. Ongi antolatutako edozein jarduerak, batez ere etnizitatearekin lotzen denak, berehala sorrarazten baititu ongi/gaizki dagoenaren, legitimoa/ legitimoa ez denaren, egin daitekeena/ ezin egin daitekeenaren inguruko zalantzak.

Beti ere, boterean daudenek ezarritako politika aintzat hartuta lan egin beharko dute, horrela, hizkuntza indarberritzearen aurka daudenek, saio hauek baliorik gabe uzteko aitzakiarik izan ez dezaten. Hots, X komunitatearen kultura, tradizioa, sinismenak, baloreak, literatura, artea, musika, dantza,..... ez dela Y komunitatearena bezalako defendatzeko, baita jatorrizko hizkuntza gizarte bizitzaren hainbat eremuetan sustatzeko egin behar duten lana ez da batere erraza izanen, eta kontrako jarrera dutenentzat arazo sortzailea izanen da.

Hau guztia dela eta, mugimendu hauen defendatzaileak lan horretarako bereziki prestaturik egon behar dira. Lana ongi egin ahal izanen da, hizkuntza indarberritzeko mugimendu horietan erabateko dedikazioa eta planteatutako helburuetan erabateko sinismena duten pertsonak lan egiten badute. Horren guztiaren inguruko kontzientziak eta pentsamoldeak osatzen dute, belaunaldien arteko hizkuntza, kultura, gizarte eta identitatea transmititzeko ereduaren teoria Fishmanen arabera.

-Hizkuntza indarberritzeko saioen urratsak:

Hizkuntza indarberritzeko egiten diren proposamen guztiek ondoko baldintza bete behar dute Fishmanen ustez: belaunaldien artean dagoen harremana transmititzeko beharra.

Hasierako urratsak izaten dira zailenak. Hauetan, ezin dira arazo politikoak eta boterezko helburuak planteatu, laguntzaileak gutxi baitira eta norbanakoen esfortzua izaten baita saioak aurrera jarraitzeko dagoen bide bakarra.

Guztira, zortzi urrats izaten dira hizkuntza indarberritzeko saio hauetan:

- 8. urratsa:

Honako hau da HINBE saioen urratsik baxuena, minimoena. Jatorrizko hizkuntza berreraikitze lana egingen da honetan. Urrats hau, hiztun herririk ez eta hiztun taldeko harreman sarerik ez dagoenean, hiztun gutxi batzuk gelditzen direnean gauzatzen da.

Osatuak dauden hizkuntza komunitateetan ez ezik, dislokaturik dauden herri mintzairatan ere aplikatzen da.

Hizkuntza komunitatean jatorrizko hizkuntzari buruzko gramatika, fonologia, ahoskera, prosodia eta semantika arauak berrezarri behar dira. Hau da, hizkuntzaren korpusa zehaztu behar da. Korpus hori arrotzegia gertatzen bada, herriak hizkera hori egiazkotzat ez hartzea eta prozesua gaizki abiatzea gerta daiteke.

Hizkuntzalarien funtzioa urrats honetan ezinbestekoa da. Hauek, gainerako hiztunen motibazioa sustatzeko baliagarriak dira; urrats hau gainditzeko beharrezkoa da HINBE saioa, testu liburu soil batean gelditu beharrean, giza mugimendua bilaka dadin.

- 7. urratsa:

Jatorrizko hizkuntzaren kulturaren elkarrekintza egoteko, komunitate horretako belaunaldi zaharrenek hizkuntza hori menperatzea ezinbestekoa da. Hizkuntza osatzerakoan parte handia daukate hura ongi ezagutzen duten pertsona heldu eta zaharrek.

Jatorrizko hizkuntzako irrati edo telebista saioetan, antzerkietan, kontzertuetan, ospakizunetan, ohituretan eta jarduera publikoetan parte hartu eta hauek antolatzen dituzten herritarrak izatea, bidea ematen die HINBEren bestelako proposamenei belaunaldi gazteak horietan inplikatzeko lana burutzera.

Pertsona zaharren kopurua gutxitzen ari da, baina, sozialki aktiboak dira eta eredugarri gerta litezke. Bestalde, euskarazko jardun guneak eta harreman sareak osatzeko elementu motibagarria izan daitezke.

Dena den, hizkuntza biziko bada, euskal arnas gune horiek indarberritu edo sortu behar dira. Bestela, zazpigarren urrats honetan egindako lanak ez du inolako eraginik izanen: urrats hau gainditu beharra dago, benetan, hurrengo belaunaldietan, eragina izanen duela ziurtatzeko.

- 6. urratsa:

Familia-auzoa-komunitatea indartu beharra dago. Hauek, demografikoki eta belaunaldi ezberdinetan osatuak egon behar dira, ama-hizkuntzaren transmisioaren oinarria baitira.

Belaunaldien arteko hizkuntzaren transmisioa gerta dadin, hizkuntza indarberritzeko saioek seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak izan behar dituzte oinarritzat; familia-auzoa-komunitate giroetan dauden harremanak, hain zuzen. Giro hauetako hizkuntza jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatu behar da, beraz.

Urrats honetan dago, Fishmanen ustez, hizkuntza indarberritzeko saioen giltzarria, muina. Urrats hau ez bada gauzatzen, gainerako guztiak, nekez, burutuko dira. Beharrezko urratsa da, baina, honekin soilik, hizkuntza indarberritzeko saioa ez da gauzatzen; ondoren datozen urrats guztiak seigarren urrats honekin loturik egonen dira, eta hizkuntza indarberritzeko saioetan bere eginkizuna izanen dute. Hortaz, autore honen ustez, garrantzitsuena hizkuntzaren erabilpena familian, lehen auzoetan eta gertuko komunitatean bermatzea da, maila horretan gauzatzen baita belaunaldien arteko jarraitasuna.

- 5. urratsa:

Hiztunak irakurle eta idazle bihurtzea: hauek alfabetatzea.

Hau da urrats honen egitekoa: hizkuntzaren sozializazio formala gauzatzea. Gizarteratzea ez da alfabetatzera soilik mugatzen; hizkuntza ikasteko aukera ezberdinak eskaini behar dira. Aldaera formal gehiago eskaintzean, hiztunak hizkuntza horretan osatzeko aukera egonen da.

Hiztunak alfabetaturik egotean, hauen arteko, harreman-sareen arteko eta hiztun taldeen arteko komunikazioa erraztu eta areagotu egin daiteke.

Ikusi ditugun lau urrats hauek (8-5) osatzen dute HINBE saioen oinarrizko programa. Hauek egokiak dira hizkuntzan eta kulturaren aplikatzeko eta ez dute beraien ezarpena eremu demokratikoetara mugatzen.

Hasierako lau urrats hauek hizkuntza jakin bateko gizarte elebiduna eta egonkorra, diglosiaren bidez mantendu dena, lortzea posible egiten dute.

Diglosia hori ez da helburu arraro bat, lortzeko ezinezkoa dena. Ez da hiztunak behartsuak izatera, parte hartzaile ez izatera eta boterea dutenen menpe jartzera bultzatzen dituen helburua.

Derrigorrezko oinarrizko irakaskuntza eta irakaskuntza sekundarioa, aukera ekonomikoa eta gobernu zerbitzuak zabalik egonen dira hizkuntza jakin horren bidez bizi nahi duten hiztunentzat. Dena den, gainerako zerbitzu gehienak nagusi den hizkuntzan izanen dira.

Hau guztia dela eta, ez da batere arraroa izaten, hizkuntza indarberritzeko saioek gizarte biziaren goi mailako erabilerak bere hizkuntzan burutzeko ahaleginak egitea.

4. urratsa:

Derrigorrezko irakaskuntzan, familian, auzo eta hurbileko komunitatearen egoeran eragina dauka honek. Estatu demokratikoen eragin horren murrizketa eskola partikularren, eliz eskolen edo eskola pribatuen bidez egin daitekeela diote.

Dena den, azken hauek ere onartu den curriculum orokorrak ezarritako oinarrizko irizpideak bete behar dituzte.

Era honetako eskolak mantentzea goi mailako gastuak sorrarazten dizkie HINBE saioen defendatzaileei eta hauen jarraitzaileei. Gastu hauek murriztu daitezke, Hizkuntza gutxiagotua hitz egiten duten gurasoak eta haurrak elkarrekin bizi badira, eta hizkuntza nagusiaren agintariak gutxiagotua dagoen hizkuntzan eskola publikoa izateko laguntza ematen badute eta horientzako programa bereziak onartzen badituzte.

Hizkuntza gutxiagotuan sortu diren programak , oro har, hezkuntza kalitatean txarragoak dira hizkuntza nagusian egindakoak baino.

Gainera, ez dituzte gutxiagotua dagoen hizkuntza horren kultura, ohiturak islatzen. HINBE saioek dituzten helburuak lortzeko ez dira egokiak.

- 3. urratsa:

HINBEk aurrera eginen badu, bere ekimena ezin da familia girora mugatu. Bestelako eremuetan ere eragina izan behar da, horien artean, lan munduan.

Lan munduaren bidez hizkuntza indarberritzeko saioek gizarte bizitzan sartzeko aukera dute. Lan munduak eta honek, status sozialean eta mugimenduan duen eraginak, nazio mailan, herri mailan eta hizkuntza mailan arrazionalagoak izatea egin dute.

Nazio arteko enpresak gero eta ugariagoak dira, eta hauetan, ordezkarien aldaketa etengabe gertatzen ari da.

Hauek sortzen eta banatzen dituzten produktuen hartzailleak, etnolinguistikoki, oso ezberdinak dira. Horregatik, teknologian, zerbitzuetan eta produktuetan etengabeko aldaketak izaten dira.

Hauek guztiak, hizkuntza aldetik eta soziokulturalki arazoak eragiten dituzten ezaugarriak direla argi du Fishmanek. Bere ustez, lan munduaren eta hizkuntza transmisioaren arteko harremana oso argia da eta berehala gauzatu behar da.

Egoera ekonomiko pertsonalak, edo taldearenak, eragin handia dauka HINBEk dituen interes eta helburuetan, hala nola, jatorrizko hizkuntzan mintzatzen duen taldea, bizitzeko auzoa, familiak nahiago duen hizkuntza, haurren gizarteratzea eta hauentzat irakaskuntza bide egokienak erabakitzeko aukeren proportzioa.

Jatorrizko hizkuntzan lan eginen duten taldeak, zentroak, lantegiak sortzea bide posibleak dira hizkuntza hori lan munduan mantentzeko; baina, beti ere, seigarren urratsarekin dagoen harremana mantenduz burutu daiteke hau guztia.

- 2. urratsa:

Gutxiagotua dagoen hizkuntza administrazioan eta komunikabideetan hedatzea. Hizkuntza hori eguneroko jardunean herritarrekin harremana duten administrazioko zerbitzuetan hedatuko da bakarrik, ez goi mailakoetan. Komunikabideekin berdin gertatuko da, herri hedabideetan hedatuko da hizkuntza horren erabilpena.

Urrats honetan sartzen diren administrazioko zerbitzuak eta komunikabideak, hizkuntza indarberritzeko saioen oinarria osatzen duten familia-auzo-komunitate giroko gaiak aintzat hartzen dituzte. Hizkuntza gutxiagotuan zerbitzu horiek burutzeko garrantzia ez du Fishmanek zalantzan jartzen, baina, seigarren urratsarekin duten harremana adierazten badute soilik. Harreman hori sendotu gabe, zerbitzu horiek hizkuntza horretan gauzatzea denbora jakin bateko iraupena izanen du bakarrik, ez baitira bihurtuko HINBE saioak prestatzeko tresna egonkorrak eta beti egonen baitira administrazioko zerbitzu eta komunikabide gehiago hizkuntza nagusia erabiliko dutenak.

Modu horretan, zerbitzu hauetan lan egingen duen jendeak, eta hauek prestatutako programek ezin izanen dute belaunaldien arteko transmisioa burutzeko tresna gisa jokatu. Belaunaldien arteko transmisioaren lotura, familia, auzoa eta gertuko komunitatea osatzeko prozesuak mantenduz hasi behar da. Administrazioko zerbitzuek eta komunikabideek hizkuntza indarberritzeko saioetan transmititu daitezkeen ekarpenak egin ditzakete; hala nola, identitatearen eraikuntzaren ingurukoak, komunitatearen antolakuntzaren ingurukoak edo gazteen gizarteratzearen ingurukoak. Zailagoa da, Fishmanen ustez, hizkuntza gutxiagotua hitz egingen duten auzoak eta familiak osatzea, hauen belaunaldien arteko transmisio zuzena egiteko talde osatuak direlako, irratian edo telebistan hizkuntza hori erabiliz berriak ematea baino. Azken hauek ez baitute ama-hizkuntza transmititzeko inolako irizpide jakinik.

- 1. urratsa:

Hizkuntza gutxiagotuaren autonomia eta kultura onartzen eta gauzatzen da hezkuntzako, lan munduko, komunikabideetako, gobernuko goi mailatan, eta batez ere, hizkuntza hori mintzatzen den herrialdeetan.

Urrats honetan, hizkuntza gutxiagotuei autonomia eta independentzia onartzeko eskaera handiagoa da.

Urrats honek hizkuntza indarberritzeko saioetan erabateko ekarpena izanen du, seigarren urratseko belaunaldien arteko transmisio prozesuetan, arrakasta lortzen duenean.

Ikusi ditugun azken hiru urratsetan hizkuntza gutxiagotuaren erabilpena hedatzea, nagusi den hizkuntzak duen kontrol ez gain, ama-hizkuntzaren jabetzarekin duten harremana ez bada berreskuratzen oso zaila da.

4.4- Hizkuntza komunitate gutxiagotuen antolaketan izan daitezkeen arazoak

Boterean daudenek, instituzioetan eta autonomia kulturalaren eraikuntzan (hezkuntzaren, lan munduaren, komunikabideen eta gobernuko zerbitzuen kontrola) duten nagusitasuna, HINBE mugimenduek etorkizunean lor dezaketena baino askoz gehiago da. Dena den, HINBE saioen helburua oso ongi zedarritzen du Fishmanek:

Belaunaldien arteko transmisioa gauzatzeko sistema bat osatzea.

Bere lehenengo urratsetan, HINBE saioentzat oso zaila izanen da jarraitzaileak ez direnei aldaketa soziokulturala behar dutela, eta ezarritako boterean komunitate gutxiagotuak eragina izan dezakeela eta hura aldatu dezakeela ulertaraztea.

Topatuko duten beste oztopo bat ondokoa izanen da: borondatez parte hartzen duten gidarienganako gehiegizko menpekotasuna, eta erabateko parte hartzea ez duten bolondresen laguntza eskasa, jarraikortasunik gabea.

Oztopo hauek gainditzeko bide bat mugimendu hauetan, giza ekimenean, honen osieran eragina dutenen parte hartzea lortzea da: irakasleak, gizarte langileak, abokatuak, eta abarrak.

Hala ere, pertsona horiek ezin dute erabateko konpromiso bat eskaini.

Fishmanen ustez, hizkuntza indarberritzeko saioen helburu nagusia ondokoa izan behar da: komunitate horretako herritarren jarrera eragiteko tresnak, bideak bilatzea eta horien bidez, jatorrizko hizkuntzan haur eskola, harrera zentroa, merkatua, lanera joateko garrario zerbitzua, eta abarrak lortzeko jarrerak aktibatzea.

Komunitate hori eratzekeo esfortzuek lotura izanen dute, nahi eta nahi ez, herriko jatorrizko sinismenekin, familiaren baloreekin, pertsona bakoitzaren esfortzua eta horrekiko konfiantzarekin, eta , garrantzitsuena dena, hizkuntza komunitate horretako herritarren bizimodua jatorrizko hizkuntzaren bidez gauzatzeko ideiarekin.

Hizkuntza indarberritzeko mugimenduek eta hauen jarraitzaileek, beraien dignitate politikoa, soziala, kulturala, ekonomikoa eta pertsonala lortzeko borrokatzen dute.

Fishmanek garrantzia handia ematen dio honako ideia honi: hizkuntza gutxiagotua erabiliko duten familiak, auzoak eta komunitateak sortzea zailagoa dela, hizkuntza horretan funtzionatuko duten eskolak, argitalpenak, komunikabideak sortzea baino. Lehenengoek, belaunaldien arteko jarraipena gauzatzeko oinarria osatzen dute. Bigarrenak, berriz, denboran eta espazioan mugatuak daude. Hauek ez dute eguneroko gizarteratzea gauzatzeko oinarririk, hau osatzeko laguntza eman dezakete, baina ez dute, berez, burutzen.

4.5- Izaera gutxiagotua duten familietan HINBE prozesua txertatzeko arazoak

Hizkuntza indarberritzeko saioetan azpimarratzen den etnizitate-ahaidetasunaren ideia ez da, soilik, auzoan edo komunitatean txertatzen jatorrizko hizkuntzaren transmisiorako oinarritzko bide gisa. Familia ere hizkuntza horren transmisiorako oinarritzko eremutat hartzen da.

Giza orekak eta komunitatearen izaerak familian daukate abiapuntua. Eredu honetan ere osatzen dira giza portaera diferenteak.

Fishmanen ustez, familiak lotura berezia dauka hizkuntzarekin eta hizkuntza jarduerekin (elkarrizketak, abestiak, jolasak, istorioak,...) bai identitate pertsonalaren bai gizarte identitatearen baitan.

Hizkuntza indarberritzeko jarraitzaileen antolaketa on batek, beraz, nerabeei, bikote gazteei eta familiei babes soziala eskaini beharko die. Horretarako, gizarte langileen eta orientatzaileen laguntza ezinbestekoa izanen da. Saio hauek lortu behar dituzten auzoak eta familiek elkarlanean, eraikuntza formalen desagerpenean eta norbanakoen parte hartzea handitzean izan behar dute bere oinarria.

Historikoki baliagarriak izan zaizkien baloreak, arauak eta jarrerak aintzat hartzen dituzten komunitateak, auzoak eta familiak osatu behar dira.

HINBE saioek duten zalantzarik nagusiena ondokoa da: bere arrakasta, egungo bizimoduan boterea duten gizarteek eta kulturek konpondu ezin dituzten arazoei irtenbide bat eskaintzeko ahalmena izatean datzala.

IKERKETA ENPIRIKOA : EMAITZAK

Galdetegian 12, 13, 14 eta 15 urte bitarteko 42 gaztek parte hartu dute, 24 Larraun-Lekunberriko ikastetxeak eta 18 Araitz-Betelukoak. Larraun-Lekunberriko gazteetatik 14 gizonezkoak dira eta 10 emakumezkoak. Araitz-Beteluko gazteetatik, berriz, 8 gizonezkoak dira eta 10 emakumezkoak.

EZAGUTZA

- Euskara maila: hizkuntza honen ezagutzari buruzko erantzunak ikusita, gazte gehienek ongi edo oso ongi egiten dute euskaraz, bai irakurketan bai idazketan . Ulertzeko ere ez dute inolako arazorik. Dena den, Larraun eta Lekunberrikoen kasuan, hitz egiteko (%8'33) , irakurtzeko (%8'33) eta idazteko (%16'67) zailtasunak badirela antzeman daiteke.

Araizkoen kasuan, berriz, irakurtzeko orduan batzuek arazoak dituztela adierazi dute: % 11'11

Hizkuntza ulertzeko, hitz egiteko eta idazteko ez dago arazorik.

Bi eskualdetako gazteek D-ereduan ikasi dute beti, beraz, jasotako irakaskuntza, hizkuntzari buruzko ezagutza formala, antzekoa da guztiengan. Agian, sumatzen den ezberdintasunaren oinarrian Lekunberriko giro erdalduna dago. Araizkoen guraso eta aiton-amon guztiak euskaldunak dira; ongi edo oso ongi egiten dute euskaraz. Larraun eta Lekunberrikoen kasuan, aiten %25ak ez daki euskaraz hitz egiten, %12'5ak gutxi daki eta %8'33ak zerbait bakarrik daki.

Amekin berdin gertatzen da: %8'33ak ez daki, %29'16ak gutxi daki eta %12'5ak zerbait daki.

Aiton-amonen artean, %24'99 da erdalduna eta % 20'28ak oso gutxi egiten du euskaraz. Honek guztiak seme-alaben hizkuntza gaitasunean eragina badu, horregatik suma daiteke diferentzia nabarmena bi eskualdetako gazteen artean.

Azaldu dugun egoerak hurrengo ataletako emaitzetan ere eragina duela ikus daiteke.

-Pentsamendu hizkuntza:

	Euskara	Gaztelania	biak	besterik
Larraun-Lekunberri	%8'3	% 25	%33'33	%33'33
Araitz – Betelu	%77'77	% 5'56	% 11'11	% 5'56

Bi eskualdeen artean ia 70 puntuko diferentzia dago pentsamendu hizkuntza euskara dutenen artean; Araitz eta Beteluko gazte gehienek euskaraz pentsatzen duten bitartean Larraun eta Lekunberriko bi gaztek soilik pentsatzen dute hizkuntza horretan.

Berdin gertatzen da gaztelaniarekin, baina, kontrako bidean: honetan 20 puntuko diferentzia dago batzuen eta besteen artean.

Bi hizkuntzatan pentsatzen dutenak dira nagusi Larraun eta Lekunberrin, baina, gaztelaniaz soilik pentsatzen dutenekin ez dago alde handirik: 8 puntu

Bestelako hizkuntzaren batean pentsatzen dutenen kopurua Araitz-Betelun oso txikia da, gazte batek soilik eman du erantzuna. Larraun eta Lekunberrin, berriz, nahikoa altua da. Dena den, ez dute zehaztu zein den beste hizkuntza hori.

- Eskolan hasi aurretik ikasitako hizkuntza:

	Larraun-Lekunberri	Araitz-Betelu
Euskara	%37'5	% 83'33
Gaztelania	%12'5	
Biak	%50	% 16'66

Araitz-Beteluko gazte gehienek euskara bakarrik ikasi zuten etxean. Biak ikasi zutenetik, guztiek, euskara lehen hizkuntza izan zela esan dute.

Larraun eta Lekunberriko gazteen erdiak bi hizkuntzak zekizkien eskolan hasi aurretik , eta hauetatik, % 33'33k gaztelania ikasi zuen euskara baino lehen.

ERABILERA

- Gurasoen hizkuntza erabilera:

	Larraun-Lekunberri	Araitz-Betelu
Euskara	% 29'17	% 44'44
Gaztelania	% 70'83	% 22'22
Biak		% 44'44
Besterik		% 5'56

Eskualde batetik bestera gurasoen hizkuntza erabileran ezberdintasunak badirela antzeman daiteke. Larraun-Lekunberrikoek gehiago darabilte gaztelania beraien artean. Araizkoek, ordea, euskara erabiltzeko ohitura gehiago mantendu dute.

Gainerako senideekin eta etxetik kanpoko esparruetan ere antzeko jarrera daukate:

Larraun-Lekunberri:		Araitz-Betelu:	
	Gaztelania		Euskara
Seme-alabekin	% 50	Seme-alabekin	%55'55
Aiton-amonekin	% 41'66	Aiton-amonekin	%57'76
Lagunekin	% 66'67	Lagunekin	%27'78
Tabernariekin	% 75	Tabernariekin	%33'33
Dendariekin	% 58'33	Dendariekin	%27'78

Seme-alaben irakasleekin euskara erabiltzen dute nagusiki guraso guztiek , Larraun-Lekunberriko guraso erdaldunak izan ezik.

Aisialdiko ekintzatan ere ezberdintasuna mantentzen da:

Larraun-Lekunberriin zenbait ekintza (kontzertuak, ikastaroak,) ez dituztela burutzen azaldu arren, bestelakoetan, batez ere, gaztelaniaz funtzionatzen dute gurasoek.

	Gaztelania
Musika entzun	% 33'33
Hitzaldiak	% 66'67
Zinea	% 70'83
Telebista ikusi	% 70'83
Prentsa irakurri	% 66'67
Aldizkariak	% 70'83

Badira hainbat jarduera bietan (gaztelania/euskara) egiten dituztenak: kontzertuak (%25), irratia entzun (% 33'33) .

Euskaraz gehien egiten dutena irratia entzutea da (%29'17). Nire ustez, honetan, eragin handia dauka eskualdeko irratia izatea: Aralar irratia Larraun, Lekunberri, Araitz eta Betelun entzuten da. Bertako berriak ematen ditu eta honek eragin handia dauka. Hau da, nire ustez, irratia euskaraz entzutearen arazoia.

Araitz – Beteluko gurasoek euskara gehiago darabilte aisialdiko ekintzetan nahiz eta, batzuetan, gaztelania nagusi den.

	Gaztelania
Telebista ikusi	% 50
Prentsa irakurri	% 50
Aldizkariak irakurri	% 72'22
Zinea	% 61'11

Alderdi honetan bi hizkuntzak berdin erabiltzea gehiago mantentzen da: telebista ikusi (%38'89), ikastaroak (%44'44), hitzaldiak (%50), musika entzun (%55'56), kontzertuak (%33'33).

Irratia entzuterakoan bat egiten dute batzuek eta besteek: hauek ere euskaraz gehiago entzuteko ohitura daukate.

Gurasoek hizkuntza bat edo bestea erabiltzeko daukaten joera gazteek daukatenarekin erkatzen badugu, ondokoa esan daiteke:

- Gazteen hizkuntza erabilera:

Larraun-Lekunberri:

Koadrilako lagunekin, ikaskideekin patioan eta ikaskideekin gelan gaztelania erabiltzen dute orokorrean: %87'50, %91'66 eta %58'33 hurrenez hurren.

Etxekoekin ere gaztelania da nagusi: aitarekin (%41'67), amarekin (%50), ana-arrebekin (%41'67) .

Aiton-amonekin, berriz, euskara erabiltzeko joera handiagoa da: % 54'17

Irakasleekin ere gaztelania da nagusi: % 83'33

Aisialdiko ekintzetan, beraiek beren kabuz egindakoak eta eskualdeko zerbitzu ezberdinek antolatzen dituztenak bereizi beharra dago. Lehenengoetan gaztelania da nagusi:

	Gaztelania
Kirola egin	% 62'5
Musika entzun	% 62'5
Kontzertuak	% 58'34
Zinea/antzerkia	% 75
Bideoak	% 83'33
Igerilekua	% 58'33
Telebista ikusi	% 58'33

Salbuespena irratia entzutea da. Hau gehiago egiten dute euskaraz: %41'67
Gurasoekin bat egiten dute ekintza honetan.

Bigarrenetan, berriz, euskara da gehien erabiltzen dena:

	Euskara
Ikastaroak	%25
Katekesia	%45'83
Udalekuak	% 33'33
Musika eskolak	% 25

Badira beste hainbat jarduera bi hizkuntzatan burutzen dituztenak: irakurri (%37'50), liburutegia (%37'50).

Araitz-Betelu:

Etxekoekin harremanak euskaraz edo bitan izaten dira:

	Euskaraz	Bitan	Gaztelaniaz
Aitarekin	% 83'33	%16'67	
Amarekin	% 55'56	%27'78	% 5'56
Anai-arrebekin	% 66'66	%11'11	
Aiton-amonekin	% 72'22	%11'11	

Atal honetan diferentzia handia dago Larraun-Lekunberriko gazteen etxeko erabilerarekin. Honek, gazteek adierazi duten hizkuntza gaitasunean eragin zuzena daukala argi dago: eskolan, D-ereduan ikasi arren, bigarrenak zailtasunak dituzte hizkuntza horretan irakurri, idatzi eta ulertzeko. Hauen etxeko giroa erabat erdalduna da kasu gehienetan nahiz eta guraso asko euskaldunak izan. Eskolatik kanpo (kalean, lagunartean, dendetan,...) ez dute euskara erabiltzen.

Araizkoek, ordea, ez dute arazorik adierazi euskaraz ulertu, idatzi eta irakurtzeko. Hauek ere D-ereduan ikasten dute, baina, horrez gain, etxeko, kaleko giroa, oraindik, euskalduna dute gehienek. Beraz, eskolatik kanpo hizkuntza erabiltzen dute, eta honek, duten gaitasuna hobea izatea dakar.

Ikaskideekin patioan eta gelan, eta koadrilako lagunekin gehien erabiltzen duten hizkuntza euskara da: %94'45, %94'45 eta %77'77 hurrenez hurren.

Aisialdian, dena den, gauzak zertxobait parekatzen dira. Beste eskualdean bezala, hemen ere, gazteek beren kabuz egiten dituzten ekintzak eta zerbitzu ezberdinek antolatutakoak bereizi behar dira:

- 1- beren kabuz egindako ekintzetan bi multzo dauzkagu:
 - a) Kirola, igerilekua, kaleko ekintzak, nagusiki euskaraz burutzen dituzte.
 - b) Etxean, ikus entzunezko ekintzetan gaztelania da nagusi: zinea, bideoak
Telebista ikusi eta irratia entzun berdin egiten dutela euskaraz zein gaztelaniaz adierazi dute.

- 2- Zerbitzuek antolatutakoak

	Euskaraz
Hitzaldiak	%55'55
Katekesia	% 94'44
Udalekuak	% 33'33
Musika eskolak	% 55'56
Liburutegia	% 44'44

Badira bi hizkuntzatan burutzen dituzten ekintzak ere: irakurri (%44'44), ikastaroak (%33'33), musika entzun (%50)

Eguneroko jardunean arruntak diren ekintza mota ezberdinetan, orain arte sumatu izan ditugun erabilpen maila diferenteak antzeman badaitezke ere, ez dira aurreko esparruetan bezain nabarmenak:

Larraun-Lekunberri

	Nagusiki euskaraz	Nagusiki gaztelaniaz
Telefonoa erantzun	%33'33	
Eskutitza idatzi	% 50	
*Oharrak utzi		
Gai intimoak		%33'33
Dendan eskatu		% 29'17
Haserrea azaldu		% 75
Txistek kontatu		%70'83
Piropoak bota		% 70'83

- Oharrak, batez ere, bietan egiten dituzte, baina, kopuruak oso sakabanatuak daude.

Araitz-Betelu:

	Nagusiki euskaraz	Nagusiki gaztelaniaz
Telefonoa erantzun	% 72'22	
Eskutitza idatzi	% 61'11	
Oharrak utzi	% 72'22	
Gai intimoak		% 33'33
Dendan eskatu	% 61'11	
Haserrea azaldu	% 66'66	
*Txistek kontatu		
*Piropoak bota		

* bitan egiten dute nagusiki: % 44'44 eta % 38'89 hurrenez hurren.

Euskaldunekin hitz egitean erabiltzen duten hizkuntzaz galdetzean, aldeak jarraitzen du:

	Euskaraz	Gaztelaniaz
Araitz-Betelu	%44'44	% 5'56
Larraun-Lekunberri	% 4'17	% 79'17

Honen guztiaren arrazoiak ugariak dira, baina, ohitura izan da erantzun nagusia : Larraun-Lekunberrin % 58'33 eta Araitz-Betelun % 33'33

Beste arrazoi batzuk : euskaraz zenbait hitz ez jakitea eta tratatzea, besteek esaten dietelako, arraroa delako euskaraz egitea (Larraun-Lekunberrikoak soilik), ez zaielako euskara gustatzen (Larraun-Lekunberrikoak soilik).

Etxean duten materiala (liburuak, CD-ak, bideoak,...) gaztelaniaz daukate batez ere, bai Araitz-Betelun bai Larraun-Lekunberrin. Bakar batzuk dituzte euskaraz, gainera, material hori nola nahiago duten galdetzean zera erantzun dute:

	Gaztelaniaz	Euskaraz	Berdin zait
Larraun-Lekunberri	% 58'33	% 20'83	% 25
Araitz-Betelu	% 16'67	% 61'11	% 22'22

Gazteen erabilerarekin amaitzeko, duela bost urteko eta oraingo erabilera konparatzeko eskatu zaie:

Larraun-Lekunberri:

	Eskolan	Etxean	Lagunekin	Aisian
Orain gehiago	%25	%33	%16'67	% 4'17
Orain gutxiago	% 37'5	%33'33	% 75	% 58'33
Antzera	% 25	% 41'67	% 16'67	% 20'83

Araitz-Betelu:

	Eskolan	Etxean	lagunekin	Aisian
Orain gehiago	%22'22	%27'78	% 5'56	% 5'56
Orain gutxiago	% 5'56	% 5'56	% 11'11	% 46'67
Antzera	% 61'11	% 61'11	% 78'78	% 66'66

Araizkoen kasuan, lau esparrutan erabilera mantendu dutenen kopuruak dira nagusi. Dena den, etxean, lagunartean eta aisian, orain gutxiago erabiltzen dutenen kopuruak ere ez dira oso baxuak.

Larraundarren artean, berriz, orain gutxiago erabiltzen da euskara duela bost urte baino lau esparru horietan.

MOTIBAZIOA

Gazteek euskararekiko eta gaztelaniarekiko duten motibazioa nolakoa den ikusteko, aisialdiko ekintzak nola nahiago dituzten galdetu zaie. Honako honetan, orain arte ikusi den bezala, Araitz-Betelukoek gehiago jotzen dute euskararen alde Larraun-Lekunberrikoek baino.

Larraun-Lekunberrikoek hizkuntzekiko motibazioa nolako duten antzeman da euskaldunekin gaztelaniaz hitz egitearen arrazoiak adierazi dituztenean: % 16'67ak esan du ez zaiola euskara gustatzen, eta % 12'5ari arraroa egiten zaio hizkuntza horretan egitea.

Bestalde, bideoak, DC-ak, liburuak eta abarrak ere gaztelaniaz nahiago dituzte euskaraz baino. Araitz-Betelukoek % 61'11k, ordea, euskaraz nahiago dituela erantzun du.

Datu hauekin, batzuen eta besteen jarrera antzeman daiteke dagoeneko. Hala ere, aisialdiko ekintzak nola nahiago dituzten azalduko dut. Atal honetan, parekotasun bat ikus daiteke bi eskualdeetako erantzunetan: euskaraz burutzen dituzten jarduerak euskaraz egitea nahiago dute, aldiz, gaztelaniaz egiten dituztenak, hizkuntza horretan egitea aukeratu dute. Beraz, euskaraz lantzen dituzten ekintzetan gustura daudela, motibatuak sentitzen direla esan daiteke, horrela jarraitzea aukeratu baitute:

	Larraun-Lekunberri	Araitz-Betelu
Hitzaldiak	% 41'67	% 66'66
Ikastaroak	% 41'67	% 72'22
Katekesia	% 45'83	% 88'89
Klase partikularrak	% 33'33	% 33'33
Musika eskolak	% 45'83	% 50
Irratia entzun	% 33'33	% 38'89
Kirola	% 37'50	% 72'22

Ikus daitekeenez jarduera hauek dira eskualdetako zerbitzu ezberdinek (kirola, euskara, gizartea, Kultur etxea, Musika eskola,...) antolatutakoak. Aldiz, gaztelaniaz burutzea nahiago dituztenak beren kabuz, etxean, kalean burututakoak dira. Hortaz, eguneroko jardunean euskararekin harremanik ez, edo harreman gutxi dutela esan daiteke. Hala ere, arazitarrek gehiago jotzen dute ekintza hauek gaztelaniaz baino gehiago bietan egiteko aukerara. Hauen kasuan, etxeko, kaleko giroa euskaldun mantentzen da oraindik, eta hizkuntza hori baliagarria zaiela antzeman daiteke:

Larraun-Lekunberri

	Gaztelaniaz	Bitan	Euskaraz
Kontzertuak	% 33'33	% 25	
Zinea/antzerkia	% 45'83	% 20'83	
Bideoak	% 58'33	% 20'83	
Telebista ikusi	% 37'50	% 33'33	
Irakurri	% 41'67	% 16'67	% 25

Araitz-Betelu

Kontzertuak	% 33'33	% 27'78	
Zinea/antzerkia	% 27'78	% 50	
Bideoak	% 38'89	% 38'89	
Telebista ikusi	% 22'22	% 38'89	
Irakurri		% 55'56	% 33'33

Motibazioarekin amaitzeko, hizkuntzekiko (gaztelania/euskara) duten interesa aztertu nahi izan da.

- Euskara: araitzarren %100ek hizkuntza honekiko interes handia duela azaldu du. Larraundarren artean %41'66ak soilik. Eskualde honetako gazteen %29'17ak euskara nahiko interesatzen zaiola azaldu du eta %20'83ak interes txikia dauka euskararekiko.
- Gaztelania: araitzarren %38'89k interes handia du hizkuntza honetan eta %44'44k nahikoa. %11'11ri (2 gazte) gutxi interesatzen zaio eta %5'56ri (gazte 1) batere ez.
Larraundarren %33'33k interes handia du gaztelanian eta %54'17k nahikoa. %12'5eri (3 gazte) gutxi interesatzen zaio.

Bestelako hizkuntzekiko interesa ere badutela adierazi dute, batez ere, ingelesarekiko interesa.

Datu hauekin guztiekin zera esan daiteke: euskararen erabilpenean aldea badagoela eskualde batetik bestera, esparru guztietan, eta horrek, hizkuntzarekiko interesan eta motibazioan eragin zuzena duela. Araitz-Beteluko gazteek gehiago erabiltzen dutenez euskara etxean, kalean, dendetan, aisian,... hizkuntza hau edozein gauza egiteko baliagarria zaiela sumatzen dute, eta horrekiko motibazio nahikoa daukate.

Larraun-Lekunberriko gazteen kasuan, eskolatik kanpoko giroa nagusiki erdalduna denez, ez diote euskarari horrenbesteko baliagarritasunik sumatzen eta duten motibazioa eta interesa ere txikiagoak dira. Gehiago jotzen dute gaztelania erabiltzera eta aukeratzera.

HIZKUNTZEKIKO JARRERA ETA HAUEN BALORAZIOA

Atal honetan lortu nahi den informazioa jasotzeko sistema zehaztea oso zaila da. Gazteek, benetan, gaztelaniari edo euskarari buruz uste dutena, hizkuntza horiekiko duten jarrera eta sentimenduak nolakoak diren aztertzea ez da batere erraza. Gurasoek transmititu dizkieten baloreak, egun, beraiek dituztenak bilatzen saiatu naiz, eta horretarako, galdera jakin batzuk eta zenbait baieztapen planteatu dizkiet alde edo kontra dauden ikusteko.

1- Euskara jakitea beharrezkoa ikusten duzu?

	Bai	Ez	Ez dakit
Araitz-Betelu	%94'44	%5'56	
Larraun-Lekunberri	% 75	% 8'33	% 16'67

2- Euskalduna izateko euskara jakin behar da?

	Bai	Ez	Ez dakit
Araitz- Betelu	%72'22	%22'22	%5'56
Larraun-Lekunberri	%54'17	%25	%20'83

3- Zuk zeure burua euskalduntzat jotzen duzu?

	Bai	Ez
Araitz-Betelu	%100	
Larraun-Lekunberri	%83'33	%16'67

4- Uste al duzu zure gurasoak euskaldunak direla?

	Aita	Ama
Araitz-Betelu	%100	% 72'22
Larraun-Lekunberri	%79'17	%70'83

Lau galdera hauez gain, ondoko baieztapenak planteatu zaizkie:

- Euskara erraza/zaila da: oro har, guztientzat oso hizkuntza erraza da eta ez zaie zaila iruditzen.
- Euskara gurea/arrotza da: araitzarren %100ek gure hizkuntza dela dio, eta larraundarren artean, %58'33k gurea dela uste du eta %4'17k dio ez dela hemengo hizkuntza.
- Ez dago euskal kulturarik euskararik gabe: gehienak ados daude baieztapen honekin: Araitz-Betelu : %88'89 / Larraun-Lekunberri: %79'17

- Umeeek euskara ikastea beharrezkoa da: aurreko baieztapenean bezala, gehienak ados daude: Araitz-Betelu: %100 / Larraun-Lekunberri: %70'83
- Euskara jakitea ez da aski, erabili behar da: araitzarren %94'44 eta larraundarren %58'33 ados dago honekin. Hala ere, bigarren eskualdeko gazteen %41,67k ez du uste hizkuntza erabili behar denik.
- Benetako euskalduna izateko ez da euskara behar: araitzarren %83'33 kontra azaldu da, baina, larraundarren artean baieztapen hau ez da horren garbia: %54'16 kontra dago eta %45'83 alde azaldu da.
- Eskolan ez da euskara irakatsi behar: honen erantzunak nahikoa adierazgarriak dira bi eskualdetako gazteengan: Araitz-Betelu: %100 kontra / larraun-Lekunberri : %80 kontra (%20 horren alde dago).
- Denok gaztelania dakigunez ez dugu euskara behar: Araitz-beteluko gazte guztiak kontra azaldu dira, larraundarren %83'33a ere.
- Ama-hizkuntza euskara, gaztelania edo biak: gehienek euskara izan behar duela erantzun dute: araitzarren %83'33 eta larraundarren %75
Biak izan behar direla ere nahikok uste dute: araitzarren %50 eta larraundarren %41'67
Ama-hizkuntza gaztelania izan behar dela uste dutenak %33'33 dira Araitzen eta Larraunen.
Baieztapen hauetan kopuruak ez dira oso fidagarriak batzuek bi edo hiru Erantzunak aukeratu baitituzte.
- Euskara hizkuntza baliotsua, garrantzitsua da: araitzarren %100 eta Larraundarren %66'67 ados daude.
- Euskara komunikaziorako baliagarria da: ados : araitzarren %94'44 eta Larraundarren %66'67
- Euskarak euskaldun egiten gaituen hizkuntza da: araitzar guztiak bat egiten dute larraundarren %75ak ere.
- Euskara lana topatzeko baliagarria da: araitzarren %61'11 eta larraundarren %54'16 ados dago.
- Nahiago ditut beste hizkuntzak euskara baino: araitzarren %100 eta larraundarren %70'83 kontra eta %29'17 alde
- Euskaraz ikastera behartuta nago: araitzarren %89'89 eta larraundarren %66'67 kontra. Dena den, araitzarren %11k eta larraundarren %33'33k diote behartuta daudela euskara ikastera.
- Euskara hizkuntza aspergarria da: araitzarren %94'44k eta larraundarren %79'17k diote ezetz.
- Euskara Euskal Herriaren izaera eta oinarria da: araitzarren gazte guztiak alde azaldu dira eta larraungo gazteen %70'83.
- Gure herrian bizitzeko ez dugu euskara behar: araitzarren %88'89 eta larraundarren %66'67 kontra azaldu dira, baina, bigarren eskualdeko gazteen %33'33k dio baieztapenarekin bat egiten duela.

Egin zaizkien galdera eta baieztapenei emandako erantzunak ikusita, Araitz-Beteluko gazteek euskararekiko duten motibazioa, sentsibilizazioa ia erabateko dela esan daiteke. Euskararekiko interes handia daukate, gehienek ustez euskara da gure hizkuntza, Euskal

Herriaren izaera eta oinarria, euskaldun egiten gaituen hizkuntza azken finean. Ezinbestekoa ikusten dute hurrek euskara ikastea baita hizkuntza hau erabilia izatea ere. Dena den, erantzunen artean garrantzitsuena ondokoa iruditzen zait: euskara komunikatzeko baliagarria ikusten dutela, hizkuntza baliotsua iruditzen zaie eta ez da aspergarria.

Larraun-Lekunberriko gazteengan, berriz, ikusmoldea, interesa eta balorazioa zertxobait aldatzen dira. Eskualde honetan euskararekiko motibazioa ez da horren handia. Ezin da esan gazte hauek ez dutela euskara batere baloratzen, baina, zenbaitek hizkuntza honekiko sentsibilizazio falta nabarmena azaltzen du: %4'17k dio ez dela gure hizkuntza, %30 inguruk uste du hurrek ez dutela euskara ikasi behar, %41'67k dio ez dela beharrezkoa euskara erabiltzea, %45'83k uste du benetako euskalduna izateko ez dagoela euskararen beharrik, %20 euskara eskolan ez irakastearen aldekoa da, %16'67k uste du gaztelania dakigunez ez dugula euskararen beharrik, %33'33 ama-hizkuntza gaztelania izatearen alde azaldu da, %25aren iritziz euskara ez da euskaldun egiten gaituen hizkuntza eta %33'33k uste du bere herrian bizitzeko ez dagoela euskararen beharrik.

Oraindik okerragoa da, gainera, %33,33k euskara komunikaziorako baliagarria ez dela, %33'33k hizkuntza baliotsua ez dela, %20'83k hizkuntza aspergarria dela ustea eta, %29'17k gainerako hizkuntzak euskara baino gehiago nahiago izatea.

Honek guztiak, eskualde honetako gazte batzuek euskararen inguruan jarrera nahikoa ezezkorra azaltzen dutela adierazten digu. Euskararen erabilpenean ikusi ditugun datu urriek hizkuntza horrekiko duten motibazioa, sentsibilizazio eta baloreekin bat egiten dutela argi dago.

ETORKIZUNA

Galdetegiarekin amaitzeko, datozen urteotan euskarak nolako bilakaera izatea nahiko luketen galdetu zaie.

Etorkizunean, Euskal Herrian eta gure zonalde honetan euskara hitz egin beharko litzatekeela uste dute Araitz-Beteluko gazte guztiek, baita hurrengo urteetan indartu eta zabaldu beharko litzatekeela ere.

Larraundarren artean ere, gehienek (%66'67), euskara hitz egin beharko litzatekeela uste dute. Dena den, %29'17k dio gaztelania beharko lukeela izan eskualde honetako hizkuntza. %58'33 euskara, datozen urteetan, indartu eta zabaltzearen alde egon arren, %20'83k gaur egun dagoen bezala jarraitzea nahi du, eta %16'67ri berdin zaio zer gertatzen den hizkuntza honekin.

Badago gazte bat euskara galduz joatearen alde azaldu dena.

Beraz, atal honetan ere, erabileran eta jarreretan ikusi den jokaera ezezkor hori suma daiteke larraundar batzuen artean. Kopuru handi bat euskara sustatzearen alde azaldu arren, badira hizkuntza honekiko jarrera ezezkorra, motibaziorik gabekoa dutenak.

ONDORIOAK

1- Ezagutza:

- Larraun-Lekunberri: guraso eta seme-alaben ezagutza mailek bat egiten dute orokorrean: gurasoak ez badira euskaldunak edo hizkuntza hau gutxi menperatzen badute, gazteek ere hizkuntza honetan idatzi, irakurri eta hitz egiteko arazoak dituztela adierazi dute. Gehienek gaztelania bakarri ikasi zuten eskolan hasi baino lehen. Gazte hauei galdetu zaienean euskaldunekin zergatik egiten duten gaztelaniaz, guztiek, hizkuntza horretan hitz egitera ohituak daudela erantzun dute. Beraz, etxeko giro erdaldunak eragina izan du gazteen hizkuntza erabileran.

Gurasoak euskaldunak direnean, hizkuntza ulertzeko, idazteko, irakurtzeko eta hitz egiteko zailtasunik ez dutenean, gazteek ez dute arazorik adierazi. Hauen kasuan, eskolan hasi aurretik euskara izan zen ikasitako eta erabilitako lehen hizkuntza nahiz eta gaztelania ere jakin. Beraz, guraso euskaldunek seme-alabei euskara transmititu egin diete, baina, horrekin batera, gaztelania ere erakutsi diete.

-Araitz-Betelu: ezagutzan bat egiten du gurasoen eta seme-alaben gaitasunak. Hauek ez dute arazorik euskaraz hitz egin, irakurri, idatzi edo ulertzeko. Gazte guztiek ikasi zuten euskara eskolan hasi aurretik. Hiru gaztek euskararekin batera gaztelania ere ikasi zuten. Gehienentzat, beraz, euskara zen hizkuntza bakarra eskolan hasi arte.

Honekin guztiarekin zera esan daiteke: euskararen transmisioa mantendu egin dela ; guraso biak edo bietako bat euskaldunak izanik, seme-alabei hizkuntza hori erakutsi diete.

Guraso erdaldunak dituztenen kasuan, gaztelania izan da ama-hizkuntza, baina, batzuk, eskolan hasi aurretik euskara ere bazekiten, gutxienez ulertu egiten zuten.

Larraun-Lekunberrin euskararen transmisioa, printzipioz, mantendu egin da, baina, gaztelaniarena ia horrekin batera gauzatu da. Gazteek bi hizkuntzak ikasi dituzte ia aldi berean, baina, non ikasi dituzte? Etxean edo kalean? herriko giroak egin du hauek gaztelania ikastea?

Hau guztia zehaztea ez da batere erraza izanen. Lehenengo urratsa etxekoen erabilera ohiturak zeintzuk diren ikustea izanen da; ondoren, ohitura horiek gazteen erabilera mailarekin bat egiten duten zehaztu ahal izateko.

2- Erabilera:

Oro har, gurasoen , etxekoen erabilera ohiturak gazteek dauzkatenekin bat egiten dutela ikusi dugu:

- Larraundarren guraso gehienek, nahiz eta euskaldunak izan, gaztelania darabilte beraien artean. Etxean, seme-alabekin eta aiton-amonekin euskaraz egiteko joera gehiago mantentzen dute, baina, etxetik kanpo (lagunekin, dendariekin, hitzaldiak,...) eta aisialdiko ekintzetan, gaztelania erabiltzen dute nagusiki. Seme-alabek ere berdin jokatzen dutela ikusi dugu.

- Araiztarren artean euskara erabiltzeko ohitura handiagoa da. Gazteen gurasoek, beraien artean, seme-alabekin eta aiton-amonekin euskaraz mintzatzen dira kasu gehienetan. Etxetik kanpoko harremanetan eta aisialdiko ekintzetan gaztelania erabiltzeko joera zabaldu den arren, oraindik euskara erabiltzen dute nagusiki, baita gazteek ere.

Bi eskualdeetan gaztelaniaz gehien burutzen diren jarduerak teknologia berriekin eta komunikabideekin lotura dutenak dira: zinea, antzerkia, bideoak, CD-ak, telebista ikusi, prentsa/aldizkariak irakurri,...

Honek guztiak adierazten diguna ondokoa da: araztarren kasuan euskararen transmisioa mantendu dela, eta hizkuntza hau erabiltzeko ohiturak, oro har, irauten duela. Gazteek hizkuntza hau baliagarria dela ikusten dute eta zenbait arlotan erabiltzen dute, gaztelaniaren eragina ere hor dagoela ahaztu gabe.

Larraunen, berriz, euskararen transmisioak huts egin ez duen arren, gaztelania euskara baino baliagarriagoa ikusten dute: helduek beraien artean, kalean, lagunekin, dendariekin, tabernariekin, aisialdiko ekintzetan gaztelaniaz funtzionatzen dute. Euskara, eskolan eta zerbitzu ezberdinek antolatutako jardueratan erabiltzen dute soilik. Hortaz, eguneroko funtzionamendua erdalduna da nagusik. Eskualde honetan, guraso euskaldunek seme-alabei euskara transmititu diete, baina, hizkuntza honen erabileran huts egin dute, eta gazteek berdin jokatzeko dute, ezin baita ahaztu gaztelania zergatik erabiltzen duten galdetu zaienean zein izan den erantzunik zabalduena: ohitura.

Dena den, badira beste bi erantzun oso kezagarriak direnak, eta erabilera urriaz gain, euskararekiko motibazio urria ere adierazten digutenak: arraroa delako euskaraz egitea (%12'5) eta ez zaielako gustatzen euskara (16'67).

Ez dira gazte asko erantzun hauek eman dituztenak, baina, oso esanguratsua da honako hau.

Euskara erabiltzeko joera eskas horretan aintzat hartu beharreko beste faktore bat ondokoa da: guraso asko erdaldunak direla (48tik 23, ia erdia).

Hauek ez diete seme-alabei euskara transmititu, eta gainera, hauen etxeko, kaleko, aisialdiko erabilera erabat erdalduna da. Beraz, gazteen erdiak, eskolatik kanpo, giro erdaldunean hezi egin dira.

3- Hizkuntzekiko motibazioa eta jarrerak:

Azterketan ikusi izan dugu araztarrek euskararekiko sentsibilizazio, motibazio eta interes handia daukatela. Gaztelania ere interesatzen zaie, baina, euskara gehiago baloratzen dute. Nahiago izaten dute ekintza ezberdinak euskaraz burutu, eta hizkuntza horrekiko aldeko jarrera azaldu dute.

Larraundarrek ez dute horren jarrera baikorrik azaltzen. Gehiengoak euskara asko baloratzen du eta hizkuntza horrekiko sentsibilizazio eta motibazio nahikoa azaldu du. Hala ere, bada kopuru bat (batzuetan txikia ez dena) euskararekiko oso jarrera ezezkorra adierazi duena. Hauek gehiago baloratzen dute gaztelania, motibatuagoak daude hizkuntza horretan, eta interesa ere handiagoa daukate. Beraz, zenbait kasutan, euskara eta euskal kulturaren inguruan gurasoek, etxeok edo ingurukoek transmititu dizkieten baloreak eta sentimenduak ez dira aldekoak izan; transmisioa mota honek huts egin duela esan daiteke.

4- Bi hizkuntzen arteko ukipen egoeraren eragina:

Azterketa osoan ikusi dugu euskara eta gaztelania elkarrekin bizitzeak zer nolako ondorio txarrak ekarri dituen euskararen biziraupenerako.

Bi hizkuntzak elkarrekin bizi dira, baina, bati eta besteari atxikitako garrantzia, baloreak, funtzionamendua eta erabilgarritasuna erabat ezberdinak direla argi dago, batez ere Larraun-Lekunberrin.

Gaztelania da hizkuntza nagusia, bizitzaren funtzio guztietarako erabiltzen dena, goi mailako statusa duena; euskara, berriz, egoera jakin batzuetan soilik erabiltzen da, gaztelania erabiltzean ez baitago euskararen beharrik. Gainera, zenbaitetan, gaizki ikusia dago hizkuntza hau eta nahiago izaten da ez erabiltzea.

Etorkizunean hizkuntza honek aurrera egitea, esparru gehiagotara hedatzea eta gehiago erabiltzeko nahia azaldu duten arren, eguneroko praktikan bestelako egoera bat da nagusi, eta honek, etorkizunean, euskararen eta euskal kulturaren transmisioaren jarraipena arriskuan dagoela erakusten digu.

BIBLIOGRAFIA

Sanchez Carrión, J.M^a. (1987), *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia

Sanchez Carrión, J.M^a. (1990), *Bilbao y el euskera. Márgenes de encuentro*. Donostia.

Fishman, Joshua A.. (2001), *Llengua i identitat*, Erize, Xabier (ed). Alzira

Martinez de Luna, Iñaki. (2000), *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Donostia.

